



EUSKAL HERRIKO

Natura

6€

104

ZENBAKIA

2018ko URTARRILA-OTSAILA



Kultura eta Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ZAKUR HAGINA

ZITORI GORRIA

IZAR HORIA

HEGAZTI KABIA

AZERI MAHATSA

LIRIO HORIA

SUGE BELARRA

ERLE LOREA

ERRATZA

EUSKAL HERRIKO LANDARE

MONOKOTILEDONEOAK

LANDARE MONOKOTILEDONEOAK



URZAIN BELARRA



LIRIO HORIA



TULIPANAREN LORE HORI GORRISKA



NAZARENOAK



ERLE LOREA



UDABERRIKO ESZILAK



EUSKAL HERRIKO
NATURA



Kultura eta Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

EHA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkarteak
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.



AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIKO NATURA- 104.zk - 2018ko URTARRILA-OTSAILA- 6€



Floraren historia.....	4
Nola bereiztu monokotiledonea bat?.....	6
Urzain belarra.....	7
Uretako zagita.....	8
Potamogeton polygonifolius.....	9
Anbulu zuria.....	11
Ihixu urdina.....	12
Cilchicum autumnale.....	13
Urzain belarra.....	14
Izar horia.....	15
Zakur hagina.....	15
Tulipanaren lore hori gorriska.....	16
Fritillaria pyrenaica.....	17
Zitori gorria.....	18
Zitori horia.....	18
Oilo esnea.....	19
Oto baratxuria.....	19
Udaberriko eszila.....	20
Jazinto basardu.....	21
Nazarenoak.....	22
Haratz baratxuria.....	23



Ibarretako lirioa.....	24
Azeri mahatsa.....	25
Erratza.....	26
Endalaharra.....	27
Narcisus asturiensis.....	28
Anbulu gaiztoa.....	29
Azafari zangarra.....	30
Otsargi belar horia.....	31
Melira.....	32
Lili urdina latifolia.....	32
Dragoneta txikia.....	33
Suge belarra.....	34
Aroa.....	34
Apomahatsa.....	35
Orkidazeoak familia.....	36



Epipactis parviflora.....	38
Epipactis microphylla.....	38
Epipactis palustris.....	39
Cephalanthera rubra.....	40
Limodorum avortivum.....	41
Listera ovata.....	42
Hegazti kabia.....	43
Platanthera bifolia.....	44
Coleoglossum viride.....	45
Dactylorhiza sambucina.....	46
Orkidea errea.....	47
Orkidea piramidala.....	48
Gizon urkatuen lorea.....	49
Ophrys generoa.....	50
Erle lorea.....	51



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.

Erredakzioburua: Iñaki Landaluze.

Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta, Iñaki Bernala, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.

Argazkilaritza-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.

Maketatzailea: Cristina Urionabarrenetxea.

Legezko gordailua: BI-2452-02.

ISSN: 1695-4645 Aleak: 2.000

Erredakzioa:

Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve.1991@egmial.com

Argitaratzailea:

Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarteak.



Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia
Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZA-ren
arteko hitzarmena dela eta WWW.euskomedia.org/adeve



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83

FLORAREN HISTORIA

Europako mendebaldean gaue egun dagoen flora nahiko berria da, izan ere Tertziarioaren azken faseetatik honantza sortu eta diferentziatu bait da.

Duela 15 milioi urte inguru, Aro Tertziarioko Miozenoan, eskualde honetako klima egungoa baino beroagoa eta hezeagoa zen dirudienez; fosil-aztarnek erakusten dutenez, Europako mendebaldea baso subtropikalez jantzita zegoen.

Miozenoaren azkenaldera eta batez ere Pliozenoan, duela 4-7 milioi urte, klima-aldaketa bortitz bat gertatu zen, askoz ere aridoagoa bilakatuz; aldaketa honen ondorioz lehorte luzeak jasatera moldatutako landareen kolonizazioa gertatu zen, izanik hauek gaur espezie mediterraneak deitzen diegunen arbasoak.

Koaternarioa duela 2 milioi urte eskas hasi zen eta bere baitan klimak gorabehera handiak izan ditu, fase hotz edo glaziarrek alde batetik, eta fase beroagoak, interglaziarrek, bestetik; txandaketa hain drastikoen eraginez landare-espezie asko galdu ziren Europan, ez ordea Amerikan edo Asian, non hegoalderantz emigratzeko posibilitate gehiago bait zeukaten; horregatik, haietan flora aberatsagoa eta bariatuagoa dago gaur egun, eta kontinente europarrean aztarna fosiletan bakarrik ezagutzen diren espezie askoren ahaideak kontserbatzen dituzte.

Gure floraren oraintsuko historian, beraz, migrazio handiak dira ezaugarri nagusia, fase hotzenetan hegoalde-



rantz atzeraka eginez eta iparralderantz aurreratuz klima gozoagoa bihurtzen zenean. Azkenik, gizakiaren iharduerak halako modu gogorrean eraldatu du azken milurteetan landare-estalkia, basoak moztu eta sun-tsituz, espezie berriak sartu, landu eta hedatuz, etab; ezen dagoeneko ezin bait zaio antzeman zein zen berezko paisajea gizakia iritsi aurretik Euskal Herria bezalako leku aspalditik jendez populatuetan.

Lurralde hau mendebaldeko Pirinioetan kokatuta aurkitzen da eta klimazko eta erliebezko heterogenotasun handia dauka gaur egun; hori dela eta, hedadura izugarrikoa ez izan arren, bertako ingurune fisikoaren baldintza desberdinetara moldaturiko landare-espezie ugari bizi da bere baitan.

Oro har, hiru zirrinda latitudinal handi dira fisiografiaren ezaugarriak; erdialdeko zona menditsua, tarteka depresio batzuez hornituta, uren banalerro gisa diharduena, bereiziz haran atlantikoak iparralderantz eta hegoalderantz Ebroko depresioko lautadak, bertako mendi sistema batzuekin batera. Altitude handienak ekialdeko muturrean neurtzen dira, Pirinioetako azken goialdeetan (Hiru Erregen Mahaia 2.428 m), baina berehala erortzen dira maila apalagoetara eta mendebalderantz nekez gaintzen da 1.500 m altitutea.

Substratuak era askotakoak dira eta historia geologikoko Aro guztietako erakuskariak ikus daitezke beren artean. Azaleramendu silizeo heda-tsuenak Aiako Harria-Bortziri eta Aldudeak-Quinto Real mazizo paleozoikoetan agertzen dira; izaera apalagoko beste zenbait geografia ia guztian daude han-hemenka. Kararrizko azaleramenduak

uren banalerroko mendi askotan azaltzen dira; marga formazioak eta flysch erako txandaketak arruntak dira nola mendietan, hala isurialde kantaauriarrean. Erdiz hegoaldeak material sedimentario berriagoen estaldura dauka, buztinak, limoak, konglomeratuak eta igeltsu-azaleramendu batzuk.

Esan beharra dago, ordea, isurialde kantaauriarreko substratuen arteko kontrastea nahiko leunduta gertatu dela euriek eragindako ikuzketa gogorren poderioz zoruak azidi-fikatu direlako; isurialde mediterraneoan, bestalde, bertako lurrinketa handiak gaitzen kontzentrazioa sortzen du gainazalean.

Klimari dagokionez, plubiositateak eta tenperaturak aldaketa-bitarte zabala erakusten dute. Plubiositate-aren kasuan, banalerroko mendien erdiz ekialdean 2.000 L/m² urteko jaso-tzen dira eta 300 L/m² edo batzuetan gutxiago, Ebroren haraneko leku aridoenetan. Tenperaturaren erregimena epela da oro har, eta mailaka aldatzen da kostaldeko klima bigun ia izotzik gabekotik hasi eta negu gogorragoko lurralde garaienetaraino. Klimaren eragin desberdin guztion ondorioz mikroklima-mosaiko bat eratzen da, bakoitza flora espezialduz, eta batzuetan jatorri desberdineko, hornitua.

Espezieak, beren banaketa-arearen aiora, elementu korologiko edo geografikoak deituriko taldeetan elkartzen dira, hauetako bakoitzak flora-eskualde bana karakterizatzen duelarik.

Euskal Herriko floran hiru elementutako espezieak sartzen dira: boreo-alpetarra, euro-siberiarra eta mediterraneo, eta gainera haiekin batera azaltzen dira eskualde anitzeko espezie batzuk, beste elementu batzuetatik etorritakoak, hala nola, makronesikoak eta irano-turaniarrak, eta jatorri desberdinetako espezie sinantropikoen mostra zabal bat (arrotzak, bertakotuak, subespontaneoak, kultibatuak, etab.). Elementu boreo-alpetarra: latitude iparraldekoenetan hazten dira, Arktikoaren inguruan, eta handik, hegoalderago mendi garaienetako irlatxo isolatuetan. Koaternarioko glaziazioetan hotzera moldaturiko landare hauek hegoalderantz hedatu ziren



eta klima epelagoak iritsi zirenean mendi garaietako estaia alpetar eta subalpetarrean geratu ziren bakar-tuta. Euskal Herrian honelakoak Pirioetan daude mugatuta; hala dira besteak beste, Dryas octopetala, Veratrum album, Valeriana montana, etab. Are gehiago, noiz edo noiz endemismoak izaten dira, adibidez Zitori horia (*Lilium pyrenaicum*), beren banaketa-are Pirinioko goimendietarra murriztuta daukatena. Elementu euro-siberiarra: Euro-

paren erdialdeko floran oinarritzko taldea da, Ozeano Atlantikotik hasi eta Uraletaraino hedatzen da eta Siberian barna ere sartzen da, batez ere hostoerorkorren basoetan. Hainbat subelementutan dago banatuta eta presentzia ona dauka gure eskualdeko zona hezeenean. Subelementu erteuroparrak hartzen ditu Europako barnealdeko lurrak, hezeak eta hotzak, eta bere hartakoak dira Girtangorria (*Ajuga reptans*), *Chrysosplenium oppositifolium*, Asum borta (*Lamium maculatum*), Otsababa emea (*Helleborus viridis*) etab.

Subelementu atlantikoak probintzia atlantiko europarra hartzen du eta bertako landareek klima hezea eta epela eskatzen dute. Gure Herriko haran eta mendi kantaauriarrak karakterizatzen ditu: Otea (*Ulex gallii*), Mihura (*Viscum album*) *Lithodora prostrata*, *Erica cinerea*, etab.

Subelementu submediterraneoak eskualde euro-siberiarren hegoaldeeneko zirrinda xerikoa hartzen du eta eskualde mediterraneoarekin kontaktuan jartzen da. Bertako landare batzuk dira *Linum viscosum* etab.

Elementu mediterraneoan: eskualde biogeografiko espezieak sartzen dira, Europako hegoaldeko parte bat eta Afrikako iparraldean beste bat hartzen ditu, Asiako mendebalderaino iritsiz. Zenbait taldetan dibertsifikatuta aurkitzen da eta Euskal Herrian erdiz hegoaldean agertzen da batipat. Zenbait espeziek banaketa orokorra dute, hala nola, apomahatsa (*Tamus comunis*), oilarana (*Prunus mahaleb*), kurkubia (*Rhinanthus mediterraneus*), etab.



NOLA BEREIZTU MONOKOTILEDONEA BAT?

Izen berberak ematen digu erreferen-tzia garbi bat bere morfologiari buruz: monokotiledonea hitzak kotiledoi bakarra duela adierazten du, zeina espezieen arabera substantzia erreserbarako organu batetarantz gehiago edo gutxiago garatua dagoen; honela gisanteak bi kotiledoi ematen ditu eta, beraz, dikotiledonea izena hartzen du, baratzuri hazi batek emaltzean kotiledoi bakarra ematen duen artean eta monocotiledónea izena hartzen du. Badaude bereizten dituzten ezaugarri nabarmenagoak: monokotiledoneek, oro har, zain paralelozko hostoak dituzte eta beren lore atalak hiru edo hiruaren multiploak dira, dikotiledoneen alderantzizkoa hostoak zain erretikulatuekin dituztelarik, ez paraleloekin, eta beren zati loretsuak bost edo bostaren multiploak dira, edo gutxiagotan lau edo lauaren multiploak. Monokotiledoneen hostoak xingola formakoak eta hestuak izaten dira, sakabana-turik kokatzen dira, zurtoinean oin edo leka zabal batetik sartzen dira eta sarritan ez dute peziolorik.

Ezaugarri hauetaz gain, badaude, konplexuagoak, bereizketa honetan lagundezake-tenak: sustrai nagusia iraupen motzekoa da laister beste sustrai batzuz ordezkatur delarik, sekundarioak hauek. Zurtoin bat transbersalki ebak-itzen badugu, ikusiko dugu nola bal konduktoreak dispersoak agertzen diren; ez dute “*cabiumik*” eta, ondorioz, hertsia dira. Ez sustraiak ez eta zurtoinak, ez dute hazkuntza sekundariarik diametroz. Polena jarraian sortzen da denboran eta apertura bakar bat izaten dute (monokolpatuak).


Monokotiledoneak familiatan zatituak agertzen dira, heuren loreen arabera bi talde haunditan bana daitezkeelarik: lorerik ez dutenak edo oharkabeen dituztenak osatzen dute talde bat (talde honi dagozkio gramineak, junkazeak eta ziperazeak) eta



loreak dituzten beste talde bat, maiz oso ikusgarriak gainera, orkideak, liliazeak (baratxuriak, poligonatoak, eszilak, jazintoak, etb.), iridazeak (irisak, krokoak, gladioloak) eta amarillidazeak (narzisoak, kanpanillak) bezala. Hauetaz gain, ezezagunago batzuek agertzen dira. Alismatazeak bezala, sagitariak eta butonazeak bezalako uretako landareak hartzen dituztelarik. Aintzinatik ezagutzen da landare hauen hazkuntza helburu ornamentalarekin, bere hazkuntza erraztasuna eta beren loreen kolore biziak jardinetan beren zabalkuntza bideratu dute. Hazkuntza ornamentalera zuzenduriko monokotiledonea ugari erraboiak, errizomak eta tuberobulbok dituzte, hau da

egoera txarrak gainditzeko adaptazioak. Era hone-tan bizitza sorrez iraun dezakete periodo kritikoan zehar eta gero bizitzara irauli udazkeneko lehen euriteekin, edo neguko elurteak erretiratu ondore-nean.

Europako alderdi meridional eta tenplatuetatik datozen Crocus eta Colchicum generoetako espezie kopuru handi bat udazkeneko lorapenezko landareak izatera heldu da, zeinaren hazkuntza udazkeneko atmosferaren eraginez bultzatzen den, hotzagoa eta hezeagoa delarik. Klima ongarriagoa duten zonetan, lorak eta hostoak bat batean agertzen dira, baina beste batzuek, batez ere goiera haundikoak historik gabe loratzen dira. Hostoak udaberrian agertzen dira, izozteen arriskua iragana delarik; kapsulak eta haziak beranduago osatzen dira.



ALISMATAZEOAK FAMILIA

Giro hezeetako espezieak biltzen dituen familia; oro har hosto iraunkorrekoak, sustraiak lokatzetan lurperatzen dituztelarik ala ur gainean flotatzen uzten. Hosto urperatuak, flotakoak edo aereoak dituzte, hestuak ala lantza-formakoak, eta kasu batzutan gezi-formakoak ala eliptikoak. Loreak arroxaz, lilaz edo txuriz koloreztatuak egoten dira, hiru petaloekin eta neurri txikiagoko hiru sepaloekin. Lorezil kopurua Sagittaria generoan soilik da seikoa baino handiagoa. Fruitua kapsula txiki batzuk edo hur taldek osatzen dute.

Familia interesgarria jatorriz Iparramerikako espezieekin eta putzu eta erreastoetan naturalizatuak. Espezie honetako hostoen forma aldatu egiten da beren anfibio izaeraren arabera, horietarik batzuetan ematen den izaera, honela, uretan hazten diren landareek xingola-formako hostoak izaten dituzte flotakorre edo aereoak gain; alderantziz lur-reko landareen hostoak txikiagoak eta lodiagoak dira.



URZAIN BELARRA

Alisma plantago aquatica



DESKRIBAPENA: hosto galkorreko landareak dira, zurtoin motzekin eta hosto guztiak oinaldekoak. Bere arrautza-formako edo zabalki lanzeolatutako hostoengatik, oinaldea biribildua edo bihotz-formarekin, bereizten da.

LORALDIA: apiriletik abuztura loratzen da.

HABITATA: baltsa, ibai eta zona lokaztuen bazterretan topa daiteke 4.000 m. taraino itsasoaren nibelaren gainetik.

ALISMA LANCEOLATUM

DESKRIBAPENA: alderantziz, hosto hestuko alismak hostoak txikiagoak ditu, hestuagoak eta zorrotzagoak, ez biribilduak.

HABITATA: giro heze hauetan lokalizatzen da ere baina apenas itsasoaren nibeletik 1.000 metrotik gora hartzen dituen. Banakuntza eskas edo arraroko landareak dira.

LORALDIA: apiriletik abuztura loratzen da.

OHARRAK: aintzinatik ezagutzen da urzain-belarraren erabilera puzturien kontra, honela, nekez puzturiko oinetan ipinirik normalitatera ekartzen ditu, bere dosifikapenak kontu eta begiramen handia eskatzen ditu.



URETAKO ZAGITA

Sagittaria sagittifolia

DESKRIBAPENA: landare galkorra da, gainerakoak bezala uretako eta porte indartsukoa; hosto aereoak ikusgarriro gezi-formakoak dira eta txorten luze batez jasotzen dira uretatik, hosto flotakorrek lantza-formakoak edo arrautza-formakoak dira, urperaturik daudenak xingola-formakoak diren bitartean. Kolore txuri hutseko loreak dituzte, antera horiekin, bertizilotan kokaturik eta sexoak, arra eta emea, banandurik. Goikaldeko loreak arrak dira eta behekaldekoak emeak. Bere hostoak hain erakargarriak dira, ur jardinetan edergarri bezala hazia izaten dela.

LORALDIA: uztaila eta abuztua bitartean loratzen dira.



URETAKO IZURRIETA

Sagittaria canadensis

DESKRIBAPENA: bere garapen handiegiarengatik uretako belar txartzat kontsideratua; hosto txiki berde ilunak ditu bertizilotan hirunaka ur lasaietan urperatutako zurtoin batzuren gainean kokaturik;


Oxigeno ugari ekoizteagatik oso erabilia akuarioetan, uretako animalientzat babesa egiten dutelako ezezik.

LORALDIA: apenas loratzen den, hau egiten duenean diametroz 5 mm.ren batetako lore arrosa aurkezten du 5 petalo dituelarik pedunkulu luze eta hestu batean.

BANAKETA: jatorriz Iparramerikako landarea, ibai gipuzkoar batzutako urgeldietan eskaski naturalizatua.



JUNKAGINAZEOAK FAMILIA



Arestikoak bezala giro hezeetako landareak. Gure herrian giro ekologiko ezberdinetako bi espezie hazten dira: bata Triglochin maritima, ize-

nak dioen bezala, itsasadar gehienetako paduretan kokatzen dena, itsasgorako zona hartzen duelarik.


TROGLOCHIN MARITIMA

DESKRIBAPENA: landare galkorra da, eskasa, oinaldeko hosto hestuekin, ez akanalatuak, nondik historik gabeko galburu luze bat jaiotzen den, ertz purpurazko lore nimino berdeak ditu; fruitu txikiak arrautz-formakoak 3 tik 4 ra mm. bider 2 mm. neurriz, zurtoinera ez aplikatuak.

HABITATA: hondartzak eta leku hezeak.



POTAMOGETONAZEOAK FAMILIA



Familia hau giro hezeetako espezieek osatzen dute, urperatuak edo flotatzen egon daitezkeelarik; ur geza ala gazietakoak, beren hostoen arabera honela klasifika daitezkeen bi genero bereizten dira:

- * Aurrez aurreko hostoekin, txorten-historik gabe... Groenlandia generoa.
- * Txandakako hostoekin, txorten-hostoekin... Potamogeton generoa

Genero Potamogeton

Uretako galburuak Potamogeton generoa hartzen du hogeitamarren bat espezieekin, zeinetarik hamar bat iristen den gure herrira.

Espezie bakoitzaren identifikapena bere hibridaketa erraztasunaz zailagotua gertatzen da, genero honetan gauza arrunnta hau. Landare arraro edo oso arraro bezala kontsideratuak

Genero honetako beste espezieak dira: *Potamogeton natans*, *P. nodosus*, *P. crispus*. Itsasoaren nibeletik 1.400 m-tako goieraraino aurki daitezke.



POTAMOGETON POLYGONIFOLIUS


DESKRIBAPENA: bere hosto flotakorrek orri eliptikoa dute, lodia, luzeran 2 tik 6 ra zm.takoa, txorten batean gradualki hestu-tzen delarik. Urperaturiko hostoak flotakorren antzekoak, orri gardenez. Lore galburua uretatik kanpora garatzen da.

LORALDIA: maiatzetik urrira iratzne da.

HABITATA: *Potamogeton polygonifolius* mugako mendietan zabalduena den espeziea da. Putzutun, euri uretan, ibai bideetan eta enbaltseetan banatuak daude.



LILIAZEOAK FAMILIA



Belarki bizikorak, sarritan erraboiak, erriozomak edo sustrai tuberiformeak dituztenak; aldizka igokariak edo, nekezago, urterokoak edo zuhaiska itxurako muluak. Hostoak batzuetan oso murriztuta geratzen dira eta haien ordeztuak hosto itxurako zurtoin-zati laundu eta berde batzuk egiten dute funtzio klorofilikoa (kladodioak).

Loreak erregularrak edo pitin bat zigomorfoak eta normalean hermafroditak; periantoak 2 bertizilo, bakoitza 3 piezakoa, izanik hauek petaloideak, askeak edo soldatuak; estanbreak jeneralean periantoko segmentuak adina, askeak edo soldatuak, obulutegia superoa, trilokularra; estiloak 1 edo 3. Fruitua kapsula edo baia erakoa.

Bere baitan 280 bat genero eta 4.000 espezie inguru hartzen ditu, banaketaz kosmopolitak. Haietako asko apain-



garriak dira, lore ikusgarrikoak, adibidez, tulipanak eta haia-zintoak, beste zenbait giza elikaduran erabiltzen dira, hala nola, baratxuria, tipula edo esparragoak.

Landareen formari eta porteari dagokionez oso familia alda-korra da, landare erraboiadun txikiak bezala, zuhaiskak, lan-dare igokariak edo eta Kanariar Iretako Drako zuhaitza agertzen direlarik.

Nahiz eta Europan liliazeoak nagusiki landare erraboiadunak diren, agertzen dira ere errizomak darama-tzatenak, baina hala eta guztiz ere heuren barruan naharotasun handia dago. Honela auekitzen ditugu, batetik, tulipanak, liriok, jazintoak, eszilak, nazarenoak bezalako kolore bizi eta ede-rreko landareak, zabalki landuak jardinerian, eta bestetik Parisko belarra, erratza, zainzuriondoa edo arkasatsa beza-lako itxura hain ezberdina eta arraroa duten landareekin aur-kitzen gara.

Familia honen barruan baratzuriak eta tipulak hartzen dituen genero kuriosoak agertzen zaigu: Allium, eta batzutan familia aparte bezala kontsideratzen dena (*Alliaceae*) Liliazeoen barruan sartzen dugu hemen.

Oro har belarkarak diren landareak, zurkara eta beraz galko-rrak izan dezaketelarik. Zurtoina erraboil, errizoma, tuberkulu edo ondo bereiztu gabeko erraboil gabeko sustrai haragitsu saldo batetik garatzen da. Hostoak oinaldekoak dira oro har, nahiz eta zurtoinean zehar, bertiziloak osatuaz ala ez, ager daitezkeen, gehien bat lerroformakoak, arrautz-formakoak edo eliptikoak izaten dira, batzutan oso meheak eta gutxitan bihotz-formaz.

Erratza eta zainzuriondoa bezalako espezieek ez dute hosto benetakorik, zurtoin transformatuak baizik, launak eta hosto itxurarekin, filokladoak edo kladodioak deitzen direnak, Loreak erregularrak dira, forma eta neuriz izugarri aldatzen direlarik; bakarka aurkez daitezke (*Merendera*, *Colchicum*, *Aphyllan-thes*), matsalkotan, galburu luzetan edo baratzuriak bezalako ginbailetan. Lorea 6 petalok osatzen dute, hau da forma, osagarri, koloreei dagokienez gisa bereko petaloak eta sepaloak, zeinetarik hiru barnekoak diren eta hiru kanpo-koak bi bertizilotan kokaturik; osorik aske egon daitezke "*qui-tamerienda-s*"ean bezala, edo erdizka soldaturik hodia osa-tuaz; lore esferikoen itxura har dezakete aho txiki batekin "*nazareno*"an bezala, non tepaloak hortz txuriska batzutara



Toefildia Generoak

Tofieldia generoak 20 ren bat espezie hartzen ditu, ez erra-boiladunak, Ipar Hemisferioan eta Hegoamerikan zabalduak. Oro har, porte txikiko landareak dira eta errizomakin, hostoak abanikoak kokatzen dira. loreak txikiak dira, txuri berdeskak eta zurtoin luze batean eserita kokatzen dira; 6 tepalo eta 6 lorezil mehe dituzte. Fruitua kapsula esferiko bat da hazi pilo batekin.

Europan ordezkaturik diren bi espezieetatik soilik bat, Tofieldia calyculata, iristen da gure lurretara. 30 zm.ko goiera har dezakeen landarea, oinaldeko hosto guztiekin eta 1 etik 3 ra kaulinarrekin.

Landare tipiko alpinoa zelai oso hezeak, ezpondak eta giro alpinoak kolonizatzen dituena. Ekainetik abuztura loratzen da eta aurki dezakegu 2.000 m.tako goieran ere.



murritzurik dauden.

Sei lorezil dituzte, handiak eta ondo garatuak. Obulutegia gai-nerako lore osagarriren gaikaldetik aurkitzen da, horregatik gaineko obulutegi deitzen delarik. Fruitua baia bezala ager daiteke (*Asparagus*, *Ruscus*, *Smilax*, *Polygonatum*) edo bes-tela hiru kuskuekiko kapsula bezala non haziak sartzen diren (*Asphodelus*, *Lilium*, *Fritillaria*, *Muscari*).

Euskal Herrian abasberuan banatzen diren 27 genero inguru ditugu, horietarik batzuk espezie oso arraroak eta banaketa eskasekoak osatzen dituztelarik, beste batzuk berriz lurralde osoa hartzen dute.

la espezie guzti hauek erraboiadunak dira eta beste landare batzuren-tzat bizitza zailekoak diren giroetara eginak daude; honela urtero erretzen diren komunitadeak kolonizatzen dituzte, suak gaztigatzen duten alderdi mediterraneanrean, zapaporrua (*Asphodelus* spp.) hel daiteke present den espe-zie bakarra izatera; larre bazkatuak kolonizatzen dituzte eta animalien pasuko eta lokulusketetako tokietan lokalizatzen dira; uralditutako zenbait lurrek epez epe liliazeoen kopuru handia izaten dute; mendi gailur arroksuetan non izoztal-dien eragina nabarmena izaten den, geofitoen gehikuntza nabarmena da.

Generoa zuzenki erabakitzearren erabil ditzakegu ondoren ematen diren gakoak:

Narthecium generoa

Oso antzeko landarea da *Narthecium ossifragum*, *Narthecium* generoko ordezkari bakarra. Galkorra, errizomakin, 45 zm-tako goierara hel daitekee-larik berde laranjatuaz tindatuaz; loreak, izar-formakoak eta kolore hori laran-jakoak, 6 tik 20 ra lorezko matsalkotan kokatzen dira; antera laranjatuekin eta harizpi finki iletsuekin. Udazkenean nabarmentzen da luzetara 13 ren bat mm.tako laranja koloreko kapsula zorrotza.

Turbategi azidoak kolonizatzen ditu, mendiko txilardi azidoak bezala.

Veratrum generoa

Genero honetako espezie bakarra (*Veratrum album*).



BERDEGAMBRE

Veratrum album

DESKRIBAPENA: 1,5 m.ko goiera har dezake, hosto zabal eliptikoak ditu, goikaldekoak txikiagoak direlarik, guztiak pubeszentzia fin batekin. Lore txuriak, berdeskak edo hori-berdeskak diametroz 15 etik 25 era mm.

0,5-1,5 m-ko landare handia, erriozomaduna, zurtoin hutsak eta hosto ugari dituena. Hostoak handiak dira, obalak eta tolestatze longitudinalekin. Loreak berdeak edo horiskak dira eta infloreszentzia luze adarkatueta hazten dira.

LORALDIA: ekainetik abuztura loratzen da mendiko zelai eta larretan, sarritanm heze, eta txilardietan ere; 2.700 m-tako goiera har dezake.

HABITATA: harkaiztietako belardi oso hezeak eta troka itzal-tsuak.

Oso bakana denenz "*Euskal Autonomi Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan*", "*Interes Berezikoa*" kategorian sartuta sago.

BANAKETA: Boreoalpetarra.

Gure Herriko espezie guztien artetik "*Bedegambre*" (*Veratrum album*) nabarmentzen da pozoisuenetariko bat bezala. Aintzinean geziak pozointzeko erabilia. Genero hone-tako espezie bakarra.



ANBULU ZURIAK

Asphodelus albus

DESKRIBAPENA: metro bateko goierako landarea, lore gara mordotsu eta adarkatu gabe batekin, lore txuri haundiak ditue-na tepalo bakoitzean lerro mehe arre laranjatu batekin.

LORALDIA: maiatzetik uztailera.

HABITATA: basoko zona hostoerorkorra eta lur menditsua hartzen ditu anbulu zuriak.

Lur arroksuetan hazten da, soroetan eta 2.000 m-tako goie-rako baso zurigunetan. Ganaduaren pasuaren eta basoaren hondamendiaren iragarlea.

OHARRAK: hurbileko poblazioetan duen hibridaketa maila gorenarengatik espezie honekin ahaidekotua eta nekez bereiz daitekeena, basaporrua (*Asphodelus ramosus*) dugu, lore matsalkoaren adarkadura haundiagoagatik bereizten dena; mazela mediterraneanretako lurralde eguzkitsuak hartzen ditu. Animalien pasuaren eta urteroko sute ekintzen landare iragarlea, suak hondatutako lurren present den espezie baka-rra izateraino. Genero honetako beste bi espezie, *Asphodelus*



aestivus eta *Asphodelus fistulosus*, eskasagoak dira eta pu-tzuertzak, hazkuntza sorra, zona meridionalenetako lur hareat-suak hartzen ditu. Aurrekoak baino altura gutxiagokoak, beren lore garak oso adarkaturik daude, basaporruen edo anbuloen tamaina hartzera iristen ez direlarik.

ANTHERICUM GENEROA

Anthericum generoa espezie bakar batek osatzen du, falangerak (*Anthericum liliago*), genero hau afrikar kontinentea bezalako zona epelagoetan dago hedaturik. Europan hiru espezie bakarrik ezagu-tzen dira. Apaingarri gisa errazki adaptagarriak.



IHITXO URDINA *Aphyllanthes monspeliensis*



DESKRIBAPENA: ihi itxurako landarea, soropiltsua, iraunkorra, 20 ren bat cm.tako goierakoa, kolore urdin moreko lore eder batzutan, zain ilunago batzurekin eta gutxitan txurirekin, amaitzen diren zurtoin mehe tente ugariz osaturik; brakteak arre gorriak inbrikatuak. Loreak zurtoin berde urdinsken gainean eserita jartzen dira. beren hostoak leka mintzaire arre gorriak kokatzen direlarik.

LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen dira talde gehiago ala gutxiago hedatueta. Fruitu txikia hiru hazizko kapsulan.

Bere barietateetarik bat apaingarri gisa lantzen da bere lore haundi urdinskengatik.

HABITATA: gure ameztegi, zumeltegi eta artadietan tipikoa, basoko zuriguneak nahiago ditu, eguzkitara irekirik eta edozein motatako lur gainean. Zumelaren banaketa jarraituz 1.200 m.tako goiera hartzen du.

BANAKETA: Mediterraneer eragina duen zonan oso hedatua den landarea ihitxo urdina da (*Aphyllanthes monspeliensis*).

FALANGERAK *Anthericum liliago*

DESKRIBAPENA: 60 cm.tako goiera hartzen duen landare iraunkorra eta belarkara da; hosto basalak ditu guztiak, berde grisakak 30 ren bat zm. luzetara, estuak. Izar-formako loreak, txuriak, diametroz 2 tik 4 ra zm, 5 etik 25 ra lorezko mordo batean kokaturik; tepalo bakoitzak hiru zain daramatza; lore-orratza goruntz okertua, lorezil zuzenak.

LORATZE: maiatzetik ekainera.

BANAKETA: Mediterraneer basoko landare tipikoa, erretzen diren zelaiak laguntzen ditu, karakterizatuaz. 2.000 m.tako goiera hartzen hel daiteke.



COLCHICUM GENEROA



Erlatiboki hedaturiko genero bat da *Colchicum*, Portugal eta Ipar Afrikatik ekialdetik Himalayaraino bana-tzen da, Europa eta Asian zehar. Europan bere banaketa mediterraneer zonara mugaturik dago, nahiz eta Britainia Haundiraino hel daitezkeen.

Udaberrian edo udazkenean loratzen diren espezieak daude; udazkeneko lorapena dutenek ez dute hostorik loretan direnean, beranduago agertzen direlarik eta udaberri azkenearaino irauten dutelarik. Udaberrian loratzen direnak hostoekin batera agertzen dira, kopuru txikiagoan garatuaz. Crocus (Iridazeoa) generoarekin nahas daitezke baina bere loreen azterketa on batek bereizteko bidean jar gintezke: Crocus-ek 3 lorezil ditu eta Colchicum-ek 6, gainera azken honek Crocus-en hostoak bereizten dituen lerro txuririk ez du.

Genero honetako bi espezie bakarrik ezagutzen ditugu Euskal Herrian: *Colchicum autumnale* eta *Colchicum neapolitanum*, biak udazkeneko lorapenekoak.

Oro har, landare ilarroak dira, iraunkorrak, oin batez homituriko tuberosulbo bertikalki luzatuekin. Hostoak loreekin edo beranduago agertzen dira, zabalero aldakorrek, lerro-formako eta akanalatuetatik zabalki eliotiko eta tolestatu edo launetaraino. Loreen kolorea aldatu egiten da briolatik arroxaraino, txuriak edo eta ajedrezatuak izan ahal dezaketelarik.



COLCHICUM AUTUMNALE

DESKRIBAPENA: neurri ertain edo ilarrokoa, 8 tik 15 cm.tarako goiera loretan denean, 35 cm.rainokoa hostoak dituenen. Hostoak 4 tik 5 erako kopuruan lorapenean, kolore berdekoak, zabalean 6 zm.koak. Lore bakartiak edo taldeka, kolore lila argi-koak osorik zabalik egonik diametroz 3,5 zm.tara iri-txiz. Tepaloek luzetara 4,5 eta 6 cm bitartean eta zabalera 1 eta 1,5 cm bitartean hartzen dituzte; antera horiak eta hiru estilo aske. Obulutegia itxirik mantentzen da lorapenaren garaian, baina umeltzean eta kapsulak sor-tzean kanpora bultzatua izaten da garapeneko hostoekin batera.

LORALDIA: abuztutik irailera loratzen da.

HABITATA: landare eskasa gure lurtean, baso hostogalkorraren alboko mendi zelai hezeak maite ditu, bai eta haltzadiak eta ibar hezetako barrenaldeak. 1.000 m.tako goiera hartzen du.



COLCHICUM NEAPOLITANUM

DESKRIBAPENA: neurri ertain edo ilarrokoa, 8 tik 15 cm.tarako goiera loretan denean, 35 cm.rainokoa hostoak dituenen. Hostoak 4 tik 5 erako kopuruan lorapenean, kolore berdekoak, zabalean 6 zm.koak. Lore bakartiak edo taldeka, kolore lila argi-koak osorik zabalik egonik diametroz 3,5 zm.tara iri-txiz. Tepaloek luzetara 4,5 eta 6 cm bitartean eta zabalera 1 eta 1,5 cm bitartean hartzen dituzte; antera horiak eta hiru estilo aske. Obulutegia itxirik mantentzen da lorapenaren garaian, baina umeltzean eta kapsulak sor-tzean kanpora bultzatua izaten da garapeneko hostoekin batera.

LORALDIA: abuztutik irailera loratzen da.

HABITATA: landare eskasa gure lurtean, baso hostogalkorraren alboko mendi zelai hezeak maite ditu, bai eta haltzadiak eta ibar hezetako barrenaldeak. 1.000 metro-tako goiera hartzen du.



MERENDERA GENEROA

Merendera generoak Euskal Herri osoan ditu ordezkariak. Landare genero txiki bat da, "*colquico*"-en an-tzekoak. Europatik Afganistaneraino ekialdetik eta Etiopiaraino hegoal-detik banatzen dira. Europak udazkenean eta udaberrian lora-tzen diren espezieak dituen arren, gure Herrira udazkenean loratzen den espezie bakarra iritxi zaigu, askari-lorea, Merendera pyrenaica. Tepaloak askeak dituelako bereizten da *Colchicum*-etik, eta bere neurria-rengatik.



URZAIN BELARRA

Merendera pyrenaica

DESKRIBAPENA: akari-lorea oso landare ñarroa da, 5 cm.tako goiera loretan denean. Lorapen garaia-oren ondoren garatzen diren lerro-formako 3 tik 4 ra hosto ditu, 10-20 cm. luzetara eta 0,5-1 cm. zabalera har dezakeelarik. Kasik beti bakarka erakusten ditu lore eseriak, kasuren batean bikoitzak izan dezaketelarik; kolore purpura ala morea eta txuria ere gu-txiagotan. Diametroz 3 tik 5 era cm. ditu, sei tepalo askeekin luzetara 3-5 cm. eta zabalera 4-7 cm, anterak kolore horikoak.

LORALDIA: abuzturik azaro-ra lora-tzen da.

HABITATA: ohizkoa penin-tsularen mediterraneaz maza-la osoan, kantauri aldean da eskasa. Pagoaren zonako soroetan agertzen da, hariz-tietan eta ameztegi eta aba-rizketatik onduriko soroetan.

BANAKETA: Piriniotatik Bardene-tarako artaburu-


trasumantzia izan zen zona honetako bere hedakuntza ohar-garria, bideak, bidetxurrak beza-lako toki zanpatuak hartzen ditu. Bere banaketa altitudinala 1.800 m.tara heltzen da. Europatik Afganistaneraino ekial-detik eta Etiopiaraino hegoal-detik banatzen dira.

ASKARI-LOREA

Merendera montana

DESKRIBAPENA: 5-15 cm-ko landare erraboiakara. Bere hosto estu eta luzangak, oinaldetik hazi eta loratu ostean ager-tzen dira. Loreak handiak eta bakartiak dira, kolorez arrosak, tepalo askeak dituzte eta baita ere hiru estilo aske. Heldutasunean eskapoa luzatu egiten da eta fruitu oblongo bat garatzen du.


LORALDIA: abuzturik urrira loratzen da. Udazkenean loratzen da, jadanik eguna laburtzen hacia denean eta askaria jateko astirik ez dagonean, bere gaztelaniazko izenak (quitameriendas = askaria kentzen duena) adieratzen duenez.

HABITATA: larreak eta leku harritsuak.

BANAKETA: Iberiar Penintsulako endemikoa.



GAGEA GENEROA



Euskal Herri guztian oso arraroa den landare talde bat, *Gagea* gene-roari dagokiona da; populazio oso puntualak agertzen dira Araban eta Nafarroan, gainerako lurraldean agertzen ez delarik.

Landare erraboiadunak dira, niminoak, normalki izar-formako loreekin, zelai alpinoak jazten dituztelarik, baina har ditzakete itsasoaren ondoko lurralde hareatsuak. Landare iraunkorak, txikiak eta erraboiadunak, hosto bat edo zenbaitekin oinaldean eta bat edo birekin zurtoinean, gainekoa infloreszentziaren oinetik hurbil. Lore horiak, berdeskak edo txuriak 6 tepaloekin, launak eta izar-formakoak, ginbail batean edo matsalko mor-dotsu batean. Sei lorezil, tepaloen oinera elkarturik. Fruitua hiru kuskuzko kapsula bat da, hazi laun eta borobildu ugariarekin. Landare genero hau nahasgarria da, guztiak oso antzekoak direlarik; bereizteko erraboi bakoitzeko oinaldeko hostoen kopurua ezagutu behar da ale ezberdinetan ikuskatu, ezaugarri barietatea delarik.



IZAR HORIA

Gagea lutea

DESKRIBAPENA: 10 tik 20 ra cm.tako goierako landarea da, oinaldeko hosto bakar bat du, lerro-formakoa, zabalean 5 etik 11 mm.tara, eta zurtoin ilegabea. 10 lore eduki ditzake, horiak, tepaloaren kanpokalde berdea, "cabillo" iletsu edo ilegabeekin.


LORALDIA: apiriletik maia-tzera.

HABITATA: landare oso arraroa Urbasako mendikatean lokaliza-tua bakarrik, lur solte eta nitrogenatuetan agertuaz, pagadia-ren ebaketarengatik sorturiko zuriguneetan.



ERYTHRONIUM GENEROA

Erythronium generoak espezie bakar bat hartzen du, gure Herrian hedapen handikoa, zakur agina, *Erythronium dens-canis*, horrela deitua bere erraboi txuriskak zakurra-ren hortzarekin duen antzarengatik. Zalantzarik gabe loraketari dagokionez landare pio-neroa da, giro horiek bere kolorapen ateginaz ezaguteraziaz. Genero hau landare apaingarri gisa lantzen da, bere lore eta hostoen erakargarri tasunaren ondorioz



ZAKUR AGINA

Erythronium dens-canis

DESKRIBAPENA: 10-30 cm-ko lan-darea, oinaldetik hurbil bi hosto oposa-tu dituen. Hostoak eliptiko-lantzeola-tuak dira eta orban arre-gorriskak dituzte. Loreak bakartiak dira, kolorez arrosak, sarritan behera begira egon ohi dira eta petaloak atzerantz kurbatuak izan ohi dituzte.

Landare oso ñarroa, erraboiaduna, iraunkorra eta ilegabea. Tipikoki kolo-reztaturiko bi hosto ditu, kolore berde urdinskakoak narrio txuri edo arre gorizkekin; oinaldekoak eta aurrez aurre, eliptikoak eta lantza-formakoak txorten luze batekin. Lore bakartiak zurtoin luzeetan, zintzilikariak, atzeraka jarri-ko tepaloekin. Kolore arrosa bizikoak, hitsak edo txuriak ere, tepalo bakoitzaren barne oinean lerro laranja deigarriekin,



antera urdinskak, irtenak.

Landare honek loraldi goiztiarra du eta lilipa-rekin batera, pagadie-tako orbelaren gaine-an tapiz koloretsu ikusgarria sortzen du negu amaieran.

HABITATA: landare erlatiboki naharoa lur azidoetan, txilardietan eta baso hostogalko-reko area hondatue-tan. Ez da ager-tzen mediterraneaz mazaletan eta 2.000 m.tako goiera har dezake.

BANAKETA: batez ere Iparramerikan eta Asian banaturiko lan-darea, europeaz espezie bakar batekin. la Europa osoa.

TULIPA GENEROA

Zalantzarik gabe *Tulipa* generoa ezagunenetariko bat da bere loreengatik, tulipanak, Europa guztian hain zabalkiro zainduak eta banatuak. Europan espezie gutxi daude, naharoagoa hegoaldean eta hegoekialdean. Espezie hauen jatorria ekialdeago dago lokalizatua, Turkian, Iranen eta Afganistanen hegoaldean; hemen-dik dator gauegun gure jardinetan ezagutzen ditugun tulipanei jatorria eman dietenak diren hibrido ugaria. Holanda izan zen, XVI. mendean, landare hauei zabalpena erraztu ziena, batez ere bere forma hibridoek dagokienez. Logikoki, landare landu hauek asko naturalizatzen heldu ziren eta ondorioz bere determinaketa botanikorako zailtasuna heldu zen; gauegun forma gehienak biltzen dituen espezie gutxitara dauden murriztuak. Euskal Herrian tulipan espezie bakar bat dago: *Tulipa sylvestris* subsp. *australis*.



TULIPANAREN LORE HORI GORRISKA

Tulipa sylvestris-australis

DESKRIBAPENA: landare ilarro edo ertaina da da, sotila, zurtain bihurri batekin lerro-formako 2 edo 3 hosto daramatzalarik, akanalatuak. Lore bakartikoa, gutxitan bikoitzak, maiz perfumatuak, luzetara 2 tik 3,5 era cm-ko tepaloekin, kanpokaldeko tepaloak arrosaz edo karminez tindatuak daudelarik; antera horiak luzetara 2,5 etik 4 mm.tara. **LORALDIA:** apiriletik ekainera loratzen da. **BANAKETA:** harritzatan eta zelai landugabeetan, ezpondatan eta arekatan, mediterranean mazelakotan... 2.000 m.tako goierara hel daiteke.



FRITILLARIA GENEROA



Fritillaria generoak Ipar Hemisferioko zona epel guztian banaturiko espezie talde handi bat hartzen du: mendebaldar Europan Japoniaraino Asia eta Iparramerikatik zehar. Asia mendebaldarra da erregionik garrantzikoena eta bere barnean Turkia eta Iran, non landare hau naharotasuna eskergakoa den. Europan ez dira ematen espezie hain bariatuak, baina bai dama tableroa bezalako bakanak, kolore ajedrezatu eder batez. Euskal Herriak bi espezie ditu; *Fritillaria pyrenaica*, subespezie batekin, eta *Fritillaria lusitanica* Nafarroan lokalizatua soilik. Landare iraunkorrak dira, errabioladunak, ilarroak edo goiera txikikoak, errabioila batekin, genero honen ezaugarri: zurtainaren oinaldea inguratzen duten bi ezkata haragitsu haundiz osatua dago. Hostoak txandakakoak, aurrez aurrekoak edo bertizilatatuak lerro-formakoak edo lantza-formakoak, ditu, lasaikiro kokatuak, kolore berdekoak lauso zeratsu grisez. Lore ezkala-formakoak edo konikoak, bakarka edo matsalkoetan. Sei tepalo, askeak, barnekaldeko alderdiaren oinaldean nektario erlantza batekin; sei lorezil tepaloetara elkartuak; estilo osoa edo trifidoa.



Fruitua kapsula formaz, tente, hazi laun ugarirekin. Bi espezieak bereizteko datorren gako honetan oinarrituko gara: *Fritillaria lusitanica* (Nektarioa 10etik 15 era mm., 5-9 hosto) eta *Fritillaria pyrenayca* (Nektarioa 3 etik 6ra mm; 7-10 hosto).


FRITILLARIA PYRENAICA

DESKRIBAPENA: landare ilarro edo ertaina da, 15 etik 40 cm.tarako goiera. Zurtain-hosto ugari, 7 tik 10 era, txandaka eta lantza-formakoak, zurtainaren goikaldeko bi herenetan insertatuak. Lore bakartiak, arre purpurak, txokolatekara, batzutan ajedrezatu horizkarekin, ezkala-formakoak, luzetara 3 tik 4 ra cm.rekin. Tepalo desberdinak: barrukaldekoak zabalagoak goikaldean, kanpokaldekoak hestuaqgoak eta arrautz-formakoak, guztiak arinki kurbatuak kanpokaldera puntatik. **HABITATA:** piriniar eta eusko-kantauriar mendietako lur harritsuetan, kalizoetan, arrokatoko unatan eta gailurretan gartzten da. Ametzaren banaketari jarraitzen dio. Sendoa eta lantzeko erraza, bere usain txarra du eragozpen bakarra. Gure zonako espezie endemiko bat da. **BANAKETA:** mendebaldar Europan Japoniaraino Asia eta Iparramerikatik zehar



FRITILLARIA VERTICILLATA

DESKRIBAPENA: gure lurraldeko beste espezieak, *Fritillaria verticillata*, Nafarroako mazela mediterranean hartzen du, Herribehera goi eta behean lokalizatzen delarik. 20 tik 30 cm.tarako goiera duen landarea da, hosto hestuekin, lantza-formakoak, txandakakoak, berde grisak. Lore bakartiak edo 2 edo 3 nakako taldetan, berdeak, ajedrezatuak edo kolore gorri arrekoak, xingola longitudinal berde edo hori batez tepalo bakoitzaren erdian; ezkala-formakoak, luzetara 2 tik 4 ra cm; estilo hirugingildua. **LORALDIA:** martxotik maiatzera loratzen da lurraldean eskaski banatzen delarik. **HABITATA:** lur lehorretan soroetako eguteratan eta pinadietatik eta ameztegietatik datozten sasietan.



Lilium generoak Lxarma handiko espezieak hartzen ditu Ipar Hemisferioan banatzen direlarik, Iparramerika barne, dentsitate handiena Asiako HEan eta Japonian lortuaz. Europan 9 espezie daude gutxi gora behera; Euskal Herrian soilik bi. Errabioila ezkata haragitsu inbrikatu kopuru haundi batez osatuta dago, nondik jaiotzen den zurtain hostoduna. Lore ikusgarriak oso, haundiak, turbante tipikoa osatuaz, lorezil ikusgarri eta itenez. Gure espezieak bereizteko gako hau jarraituko dugu: *Lilium martagon* eta *Lilium pyrenaicum*.



ERYTHRONIUM GENEROA

ZITORI GORRIA

Lilium margaton

DESKRIBAPENA: landare altua da, 1,5 m.tako goierakoa. Hostoak bertizilotan kokaturik 4 tik 10 era, eliptikoak, 7 tik 9 ra zainekin. Lore arroxak edo purpurak, diametroz 4 ren bat cm.koak, usain garratza uzten duten 3 tik 10 era lorezko erramilete lasetan. Tepalo gogorki kurbatuak beren erdialdetik, protuberantzia purpurakara nabariek. Zurtoinak: 180 cm-rainoko garaiera. Erraboilak: Handiak, hori urre-kolorekoak, ezkatadunak. Hostoak: la lantza-formakoak, bertizilatuak.



txuri eta marroietan lantzen da.

Loreak: Matsalko lasan, 3,5 cm-rainoko lakainak, kolore arrosa edo purpura, ba-tzutan zuriak, sari orbanduak.

LORALDIA: ekainetik uztailera lortzen da. Mendiko landare tipikoa da, babestua, arraroa edo oso arraroa gure lurraldean.

HABITATA: basoak eta sastrakak.

BANAKETA: giro oihandarretan, hal-tzadietan, pagadietan eta batez ere pinu gorritzko pinadietan. 1.800 m.ko goieraraino hel daiteke. Basalilia da espezie europear zabalduena Kaukaso, Siberia eta Mongolia-raino iristen delarik. Apaingarri gisa kolore

ZITORI HORIA

Lilium Pyrenaicum

DESKRIBAPENA: metro bateko altuera har dezakeen landarea; txandakako hostoak ditu, ugariak, lantza-formakoak ertz iletsuekin. Lore haundiak, horiak edo hori berdeskak, batzutan zertxobait laranjatuak, finki narriotuak purpuraz, usain garratzarekin; 2 tik 8 ra lorezko matsalko laseak osatzen ditu. Antera arre gorritzak, harizpi berde hitsez.

LORALDIA: maiatzetik uztailera lora-tzen da.

HABITATA: labarretako oinaldeak, horma harritsuak eta arrakala itzaltsuak.

Landare deigarri honen arazoak ditu ugal-tzeko azienden eraginez. Gomendagarria litzateke populazio batzuk hesitzea ardi eta ahuntzen sarrera ekiditeko.

BANAKETA: landare arraroa gure herrian; Frantziako hegoaldean eta Penintsulkaren iparraldean endemikoa da; itsasoko mailatik 1.800 m.ra hazten da; belaze freskoaren gaineran bizitzen da, nola kostaldean, hala mendi gorenen elu-tsetan, lur karekizko edo sili-zezkoetan. Hezetasun giroa behar du. Babespena behar duen landarea da.



ORNITHOGALUM GENEROA



Ornithogalum generoa Europan eta bereziki mediterranearen erregioan oso arruntak diren landare erraboiladun kopuru handi batez osatzen da. Beste espeziei batzu aurkitzen dira Asia mendebaldarrean, Afrika tropikalean, baina lore horiz eta laranjaz. Genero mailan erraz eza-gut daitezke eta zailtasunez espezie mailan. Kasik denek lore txuriak dituzte, izar-formakoak, xingola batez tepalo bakoitzaren kanpo-kaldean. Errazak lantzen, jardinetan, soroe-tan edo sasi azpitan naturalizatzeko erabiltzen dira, gure hirietan topa daitekeelarik.



Landare erraboiladunak, ñarroak ala altuak. Oinaldeko hostoekin, bakarka edo erroseta edo erramileteak osatuaz. Lore txuriak edo berde horixkak, izar-formakoak edo ezkila-formakoak, ma-tsalko mordotsuetan. Sei tepaloi, askeak; sei lorezil. Fruitua hiru kusu eta hazi ugariko kapsula batek osatzen du. Euskal Herrian present diren hiru espezieak honela bereiz ditzakegu: *Ornithogalum umbellatum*: (korinbo lasekiko loreak, pedizelo desberdinak), *Ornithogalum pyrenaicum* (lerro-formako 5etik 8ra hosto, lore hori berdeskak) eta *Ornithogalum narbonense* (3tik 5 era hosto, lore txuriak. Izatez giro lehorretakoa).

OILO ESNEA

Ornithogalum umbellatum

DESKRIBAPENA: landare ñarroa da, 10 etik 30 cm.tarako altuera. Hostoak ematen dituzten alboko bulbilo ugari dituen erraboila txuri bat du, lorapen garaian talde hostodunak osatuaz. Hosto berde ilunak, zabalera 2 tik 8 ra mm.takoak, 6 tik 9 rako kopuruetan, balan akanalatuak, xingola txuri batez. 5 etik 20 ra lore, txuriak, tepalo bakoitzaren kanpokaldean erdiz erdiko xingola berde bizi batez; diametroz 15 etik 25 era mm, korinbo patenteetan kokaturik pedizelo oso desberdinekin, behekoak 10 cm.rainoko luzerarekin. Lantza-formako tepalok, nabariak eguzkitan, lantza-formako brakteenekin.

LORALDIA: maiatzetik uztailera lora-tzen dira.

HABITATA: landare ez ohizkoa, gure hirietako harresi eta ordeketan bizi da, zelai eta sasien gainean bezala.



ORNITHOGALUM PYRENAICUM

DESKRIBAPENA: metroko altura har dezakeen landarea, lerro-formako 5 etik 8 ra hostoekin, berdeak, 5 etik 9 ra mm.tako zabaleroarekin eta lorapenean iharturik. Lore hori berdeskak, hitsak, 15 edo 40 ko kopuruan, ma-tsalko luze eta segailetan; 15 ren bat mm.takoa diametroz bakoitza, soilik 2 tik 3 ra mm.tako zabalero tepaloekin eta ertz biribilkatuekin, izar-formako itxura ematen dietelarik; luzetara 1 etik 2 ra cm.tako lore txortenekin, fruituarekin tente mantentzen direlarik.

Landare honen kimu gazteak zainzuriak bezala jaten dira. **LORALDIA:** maiatzetik uztailera loratzen dira.

HABITATA: landare ez ohizkoa, gure hirietako harresi eta ordeketan bizi da, zelai eta sasien gainean bezala.

BANAKETA: landare arraroa da, giro oso hezeetakoa, hal-tzadietakoa, mediterranearen mazelan oso lokalizatua dagoelarik. 500 etik 1.000 m.ren arteko goieran aurkitzen da.



OTSO BARATZURIA

Ornithogalum narbonense

DESKRIBAPENA: otso baratzeria aurrekoaren antzekoa da, baina landarea lortan denean ihartzen ez diren 3 tik 5 era hosto berde grisaskekin, zabalera 10 etik 15 era mm. Loreak 50 unitatezko matsalko luze batean banatzen dira, txuriak, tepalo bakoitzean erdialdean lerro berde batez; tepalokak 2 tik 3 ra mm.ko zabaleroz, ertz biribilkaturik gabe. 1 etik 3 ra cm.ko luzerako lore txortenenak, tenteak fruktifikapenean. Landare arraroa ere, mediterranearen mazelan hedatua. Giro eguzkitsuak gustatzen zaizkio, erretanak, zelai landugabeak eta ubideak. 600 m.tako goieraraino iristen da.



SCILLA GENEROA

Asko lantzen den landare genero bat *Scilla* da dudarik gabe; eszilak udaberriari lotuta doaz; genero hau landare erraboi-ladun txiki eta ertainek osatzen dute. Basa egoeran aurki daitezke lore espezie txuri edo arroxak, baina kolorerik nagusiena urdina da. Oro har udaberrian lora-tzen badira ere, badaude bi udazkenean loratzen direnak.

Generoa nahiko handia da eta Europa eta mendebaldar Asiatik India eta Txinaraino banatzen da; hegoaldeetik Afrikan zehar Buena Esperanzako Luadarrerraino luzatzen da.

Eszilak landare erraboi-ladunak dira, iraunkorrek eta ilegabeak gehien bat, oinaldeko xingola-formako hostoekin. Zurtoin lore-maileak afiloak dira izar-formako hosto txikizko matsalko bat daramatelarik. Lore bakoitzak espezie batzutan huts egin dezakeen braktea bat darama; fruitua zenbait hazi beltzezko kapsula batek osatzen du. Genero honek 22 ren bat espezie ditu, zeinetarik soilik hiru agertzen dira gure herrian, eta honela bereiz daitezke: *Scilla autumnalis* (Udara azkenean edo uzkenean lor-tzen



dira), *Scilla verna* (lerro-formako 2 tik 6ra hosto, 2tik 5 era m.ko zabaleroa) eta *Sicilla lilio-hyacinthus* (xingola-formako 5etik 10 era hosto, 10 etik 30 era mm.ko zabaleroa).

BRIMEURA AMETHYSTINA

DESKRIBAPENA: landare erraboi-laduna da, ñarroa 10 etik 25 cm.rako goierarekin, hosto berde lerro-formakoekin eta kolore urdin biziko, hodi-formako eta zintzililako loreekin, luzetara 10 mm., alde-bakarreko matsalko lase batean banaturiko 5 etik 15 era loreekin; tepaloen apizea kanporantz kurbatua agertzen da. **HABITATA:** gure area espezie honen mendebaldar muga da, oso lokalizatua agertzen da, karekizko ordeketan. Pirinioraino heltzen da ameztegi prepirinaikoan zehar.

BANAKETA: banaketa kuriosoa aurkezten du: hemen Pirinioan agertzen da banaketa eskas batez eta Kroazian.



UDABERRIKO ESZILAK

Scilla verna

DESKRIBAPENA: 20 cm.tako goiera har dezake, gehienetan porte ñarroagokoa den arren. 2 tik ra hosto ditu, lerro-formakoak, kolore berde bizikoak, zabalera 3 tik 6 ra mm., akanalatuak eta loreak baino lehenahoa agertzen direnak.

Loreak 2 tik 12 rako kopuruan, lilak edo moreak, izar-formakoak motsolka mordo-tsu batean luzetara 5 etik 13 ra cm.tako pedizeloan gainean; braktea zorroztuak, luzetara 8 tik 17 mm.rekin. Erraboiak ezkata txurirekin.

Hostoak: 2-6 hosto, lerr-formakoak, berde biziak, 2-5 mm zabalekoak, puntan tupustean estutuak.



Loreak: urdin lila-bioletak, izar formakoak, 7-10 mm-koak, 2-12ko matsalko trinko ia korinbo erakoan. Bere izen zientifikoak (verna) udaberriko landare dela adieratzen du.

LORALDIA: apirilatik ekainera loratzen da.

HABITATA: belardiak, larreak, sastrakadi irekiak, baso soiluneak eta har-kaiztietako erlaitzak.

Landare arrunta, itsaso mailatik 1.500 m.tako goieraraino hazten dena,

giro askotan: txilardiak, pentzeak, arrokazko orekak, duna litoralak eta akantilatuak.

BANAKETA: Europako mendebalde.

PIRINIJOKO ESZILA

Scilla lilio-hyacinthus

DESKRIBAPENA: 40 cm.tako goiera har dezakeen landare da, tipikoa gure mendiko pagadietan; hosto berde izar-niatsu batzu ditu, zabalak. Lore urdinak, izar-formakoak, 10 etik 15 era cm.koak, 5 etik 10 erako matsalko lase batean. Berezkoa duen erraboila horia, ezkata inbrikatuekin.

Zurtoinak: 15-40 cm-ko garaiera.

Hostoak: Berde distiratsuak, 5-10eko kopuruan, xingola-formakoak, erdialdeetik gora zabalagoak, puntan tupustean estutuak.

Loreak: Loreak lilak edo urdinskak dira eta itxura koniko edo obalatum lore mordo lasietan ageri dira. 10-15 mm-koak, 5-15 loreko matsalko lasan.

Erraboila lodia du, horiska eta ezkata mamitsuz inguratua.

HABITATA: zalantzarik gabe udaberri aldera pagadiak hobekien koloreztatzen dituen landarea, kolore urdin oso erakargarri batezko unak osatzera hel daiteke.



BANAKETA: Europako hegomendebalde.

JAZINTO BASARDU

Dipcadi serotinum


DESKRIBAPENA: landare erraboi-laduna, 40 cm.koa goieran, oinaldeko 3 tik 5 era hostoekin, lerro-formakoak. Lore arreak, arre-horiskak edo berdeskak, zintzilikatuak eta ezkila-formakoak, alde-bakarreko ma-tsalko baten gainean.

HABITATA: lokala eta arraroa gure herrian, Araba eta Nafarroako probin-tzietako mediterranean mazelako lur uherretan agertzen da.

BANAKETA: jazinto bastardu edo leonatua (*Dipcadi serotinum*) Dipcadi generoari dagokio, espezie bakar bat duelarik soilik; kurioski Europako HEan eta Afrikako I. aldean banatzen da, non arraroa eta lokalizatua bihurtzen den



MUSCARI GENEROA



Muscari generoak bi ordezkari ditu Euskal Herrian.

Landare erraboi-ladunak dira, jardinetan eta baratzetan landatzen dira; oro har kolore urdinekoak, zenbait horiak. Bi moietako loreak dituzte: goikaldekoak batzu, osterantzekoak baino kolore argiagoarekin eta sarritan antzuak direlarik;

behekaldekoak, kolore ilunagoekin eman-korrek dira.

Gure lurraldeko espezieak gako honen bitartez bereiz ditzakegu: *Muscari neglectum* (loreak matsalko lasetan, muturreko lore antzuak luzaro pedunkulatuak) eta *Muscari comosum* (loreak matsako mordsuetan, muturreko loreak motzi pedunkulatuak).



NAZARENOAK

Muscari neglectum

DESKRIBAPENA: landare flarroa da, 3 tik 6 ra hostoekin, lerro-formakoak, berdeak. Loreak urdin biziak, moreak batzutan, hortz txurri ederrekin, maisatzean urrin atsedengarria uzten dutelarik. Lore antzuak, goikaldean kokatuak, kolore urdin argikoak dira. Nazarenoak landare oso hedatuak dira eta hazkuntzetan plaga bihur daiteke bere bulbi-loak ekoizteko ahal-menarengatik.

LORALDIA: martxotik maiatzera loratzen da.

HABITATA: landare pirofilo tipikoa, ugaria ameztegin zonetan, piriniar ibarretan peitu delarik.



MUSCARI COMOSUM

DESKRIBAPENA: ajipuerco, erraz ezagut daiteke bere loreengatik, bai eta ere erraboila arrosa bereizgarriarengatik. Landare altua, 60 cm. rainoko goiera, lerro-formako 3 tik 6 ra loreekin. Lore antzuak, kurioski tenteak, kolore urdin edo morekoak, pedunkulu urdin morea luze eta meheen gainean. **LORALDIA:** apiriletik ekainera loratzen da.

HABITATA: lur landuetan hazten da, ordeketan, erreteneetan, kantauriar mazelan arraroa delarik.



ALLIUM GENEROA



Estudiatzen ari garen familiatzar honen bamean, generorik espezieetan hedatuena zalantzarik gabe *Allium* da; tipulak, baratxuriak eta pirruak dira gure-tzat ezagunenak diren bere ordezkariak; espezie arrunt hauetaz gainera espezie kopuru handia dago, gure janarien zerrendan sartzen ez badira ere, gure zelai eta pentzeak apaintzen dituztenak.

Kasik espezie guztiek aurkezten dute tipula usain bereizgarria, baina ez dira denak jangarriak eta gainera batzuk usain txarra ere badute. Beste batzu jardinetan lantzen dira, beren buru lehorrak neguan barneko apaingarri gisa erabiltzen direlarik.

Landare oso naharoak goierari dagokionez, iraunkorrak, erraboila-dunak guztiak, usain bereizgarriarekin. Erraboilak tunika zuntzezko edo papirokaraz estaltzen dira, bakarka edo matsalkoak osatuaz, batzutan erizoma motz batetan bildurik. Oro har hostoak lerro-formakoak edo eliptikoak eta arraroki arrautz-formakoak; oinaldekoak nagusiki, edo zorrogileak zurtoinarenean lehen herenean. Lore izar-formakoak, ziatiformeak edo ezkila-formakoak, lorezko ginbail batean. Bere tepaloak, askeak generalki, zeintzui elkartzen zaizen sei lorezilak, harizpi maiz trikuspidaduen edo berdin sinpleen gainean. Estigma osoa edo edo hiru lobulu motzekin. Fruitua hiru kuskukiko kapsula bat da, bakoitza hazi kopuru naharo batekin.



Hazkuntzako espezieen artean tipula daukagu (*Allium cepa*); tipuleta (*Allium fistulosum*); baratxuria (*Allium sativum*) eta porua (*Allium ampeloprasum*) arruntki naturalizatua ezponda eta hazkuntza soroetan.

Espezie mailan bereizketa konplexua da; *Allium* generoko espe-

zieak ehundaka dira Europan. Euskal Herrian gutxi gora behera 17 ren bat espezie ditugu giro guztietan banaturik: goi Pirineotik mediterraneaner mazelako behe lur uherretaraino.

Espezie bat bestetik bereiztu ahal izateko gaiari buruz bibliografia espezializatua begiratu behar dugu. Arruntenak edo bereizten errazten diren artean hurbilketak egiten saiatuko gara.

Lehen gomentatu dugu bere hostoak lerro-formakoak edo eliptikoak izan daitezkeela; erraz bereiz daitekeen ezaugarri honi jaramon eginik, hosto eliptikozko espezieen artean hiru ordezkari ditugu:

Allium moly: kolore hori biziko loredua, ginbail ez mordotu batetan; harkaitzeta eguzkitsueta tipikoa.

Hartz-baratxuria (*Allium ursinum*) basoetan agertzen den ordezkari bakarra da, bi hosto eliptiko zabalak ditu, oinaldekoak, lore izar-formako txuriak ginbail lase batean, 25 baino lore gutxigorekin; maiatzetik ekainera loratzen da; hosto eliptikoak oso arraroa soilik aipatua Gipuzkoan eta Bizkaian; lore txuri ugariak ditu ginbail esferiko batean, diametroz 4 cm. taraino.

Beste 14 espezieak, konplexuak bereizketan, Euskal Herri guztian banatzen dira maiztasun handiagoz ala gutxiagoz.



BARATXURI ARROXA

Allium roseum

DESKRIBAPENA: baratxurri arrosa erraz bereiz daiteke bere kolore arroxazko loreengatik, apiriletik ekainera gure errepide-etako arekak edertzen dituelarik.

LORALDIA: maiatzetik ekainera

HABITATA: larreak eta leku harritsuak.

OHARRAK: baratxuriek eta tipulek ezaguterazi dute medizina herrikoia, gauregun ikerketen bidez baieztuak izan diren bertute kontaezinekin. Baratxuria epidemien kontra errekomentatua izan da bere ondorio bakterizidarengatik; giza inektizida bezala bere erabilera ezaguna da ere; nikotina intoksikazioen kontrako ekintza, bere fakultate hipotentsoreak eta azkenik gabeko propietateek izan horren merezigarri bihurtu dute. Baratxuriak bertuteak baldin baditu, bere ahaidekoa ez da gutxigotako, zeinak lehendabizikoaren antzera, digestioa eta diuresia ematen dituzten propietateak dituen.



HARATZ BARATXURIA

Allium ursinum

DESKRIBAPENA: zurtoinak 10-50 cm-ko garaiera.

Erraboila biluzia, oinaldean zuntz paralelo bakan batzu besterik gabea. Hostoak oinaldekoak, arrautza-formakoak.

Loreak ginbail lasan elkartuak, 6-20 lore zuri, kandu alderatuak.

LORALDIA: maiatzetik ekainera loratzen da.

HABITATA: baso hezeak.



CONVALARIA GENEROA

Bere generoko espezie bakarra den landarea da *Convallaria majalis* ibarretako lirioa edo "muguete" deitua.



IBARRETAKO LIRIOA

Convallaria majalis

DESKRIBAPENA: landare iraunkorra da, errizomakin, herrestaria, goieran 40 cm. har ditzakeelarik. Bere hosto zabalki eliptiko birengatik bereiztua, laurekin ager daitekeelarik, oinaldean zorroraturik, kolore berde izarniatsu bizia dute. Lore txuri zintzilikariak, oso usaintsuak, ezkila-formakoak luzetara cm. batekoak, aldebakarreko matsalko luze batzutan kokaturik. Fruitua garau deigarri bat da.

Landare toxikoa, printzipio aktibo kardiotonikoa duelarik. Lehen Gerrate Mundialean erabilia izan zen gasez kutxaturiko soldaduak erreanima-tzeko.

LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen da, 500 etik 1.800 m.en arteko goieran.

HABITATA: landare oso arraroa Euskal Herri guztian, Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan agertzen da, pagadietako elutsetako errekastoen alboetan, nagusiki karekizko luraren gainean.



POLYGONATUM GENEROA



Antzeko landare talde bat *Polygonatum* generoari dagokiona da, 6 espezieekin, zeinetarik hiru gure lurraldera heldu diren. Landare iraunkorrak dira, errizomakin, luraren arabera talde haundiak osatzera hel daitezkeelarik. Hostoak txandaka edo bertizilotan, motzki txortendunak edo eseriak. Lore berdeskak edo txuriskak, luzeak, zintzilik, bakarka edo taldeka. Fruitua baia biribildu beltzurdinska edo morea da.

Gure espezieak honela bereiz ditzakegu: *Polygonatum verticillatum* (hosto bertizilatuekin, lerro-formakoak), *Polygonatum odoratum* (zurtoin angelutsuak, loreak bakarka ala binaka, usaintsuak) eta *Polygonatum multiflorum* (zurtoin biribilak, loreak 2tik 6rako taldeetan, ez usaintsuak).

Zalantzarik gabe, kotiledoibakarrekoen artean, landare ederrenak dira, jardinetan hazkuntzara emanak.



POLIGONATO BERTIZILATUA

Polygonatum verticillatum

DESKRIBAPENA: poligonato bertizilatua erraz bereiz daiteke bertizilotan kokaturiko bere hostoengatik, lore txuri-berdeskak ditu, taldeka edo banaka, kolore more gorriskako fruituak ematen dituztenak.

Oso arraroa Euskal Herri guztian, karekizko mendizerratan agertzen da, poblazio oso lokalizatuekin.

HABITATA: maiatzetik ekainera loratzen da.

BANAKETA: bere banaketak Himalaya ere hartzen du.



DAVIDEN MALKOAK

Polygonatum odoratum

DESKRIBAPENA: Daviden malkoak da espezierik zabalduenetariko eta hazkuntzan erabilienetarikoa; usain oneko lorea duen bakarra da.

Zurtoin angulutsuak ditu nondik hazten diren txandakako hostoak, eliptikoak. Lore txuriak apize berdeskekin, oso usaintsuak, luzetara 12 tik 27 ra mm.rekin, bakarka edo binaka. Baia beltz urdinska bat ematen du.

Bere errizoma sendakuntza herrikoiean erabilia berazkoa eta hesteminak, erreuma, gotari aurre egiteko eta diuretik bezala. Pizma eran azalari atxekirik beronen akatsak kentzen lagun-tzen du.

HABITATA: oso arraroa ere, Euskal Herrian, Araban, Nafarroan eta Bizkaian sakabanaturik bizi da, karekizko harkaitzetatako arrakalak beteaz.

LORALDIA: maiatzetik ekainera lora-tzen da 2.200 m.tako goierara hel daitekeelarik.



SALOMONEN ZIGILUA

Polygonatum multiflorum

DESKRIBAPENA: salomonen zigilua arestiko espeziearen antz handikoa da, hura baino altuxegoa delarik; zurtoin biribilduak ditu, ilegabeak; loreak luzetara 9 tik 20 ra mm.koak, ez usaintsuak, 2 tik 6 rako taldeetan.

Landare eskasa eta arraroa gure lurraldean, bere ahaidetakoen gisako propietate medizinalak ditu.

LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen da.

HABITATA: giro itzaltsuetako lur freskoen gainean hazten da, oso har baso hostogalkorretan; itsasoko mailatik 1.400 m.tako goieraraino.



PARIS GENEROA

*Paris*en mahatsa, *Paris* generoari dagokio, espezie bakarra hartzen duena.

AZERI MAHATSA

Paris quadrifolia

DESKRIBAPENA: espezie iraunkorra, ilegabea, errizomarekin eta 40 cm.tarainoko goierakoa. Hosto berdeak, 4 hostozko eta gutxitan 8 ko bertizilo bakar batean kokaturik, zurtoinaren goikaldean lekutua, motzki peziolatuak, obobatuak. Lore berde edo horiak, bakarka eta izar-formakoak, 40 tik 60 ra mm., 4 tik 6 ra sepalo eta petaloekin. Sepaloak lantza-formakoak eta petalo melarrak eta filifor-meak. 8 lorezil nabariek. Fruitu globularra beltza.

Azeri mahatsa aintzinean herboristerirako erabilia izan zen, oso toxikotzat kontsideratua dago.

LORALDIA: maiatzetik uztailera loratzen da

HABITATA: arraroa Eusikal Herri guztian, pagadiaren zonan agertzen da, poblazio oso lokalizatuetan.

BANAKETA: Himalaya, Japonia eta Iparramerika bezalako leku urrunetako beste batzurekin ahaidekotuta dago.



RUSCUS GENEROA

Belarki bizikorak edo zuhaiskak izaten dira, betiberdeak, eta dauzkate haziera mugatuko zurtionak, bakunak edo adartsuak, errizoma baten ezkatzen galtzarbean jaioak. Hosto kaulinar txikiak, eskariosoak, eta haien galtzarbetik jaiota hosto-itxurako adar edo kladodioak. Infloreszentziak luku trinkoetan, kladodioaren erdiko braktea baten galtzarbean jaioak; loreak sexubakarrak, bakoitza bere pedizeloa-ekin; periantoko segmentuak askeak, berdeskak edo zuriskak; estanbrean harizpietatik zutabe eran soldatuak, bioleta ilunak; obulutegia unilokularra, inoiz partez zatitua. Fruitua bai erakoa, 1-4 hazikoa.



ERRATZA *Ruscus aculeatus*

DESKRIBAPENA: mulua eta altueran 1 m edo gehixeago hazi daiteke eta dauzka zurtin zurrinak, berde ilunak, adartsuak goialdean eta guztiz ilegabeak. Kladodioak 1-4 cm, zabalki obatu eta lantzeolatu bitartekoak, punta arantzakaren estutuak apizean. Loreak 1-2, periantoak 4-5 segmentu, 4-5 mm-koa bakoitza; arrek 3 estanbre eta emeek pistilo bakarra, biribildua edo oboidea, 1 barrunbe dituen.

Baiak 10-15 mm, biribilduak, kolore gorri bizikoak.

LORALDIA: martxotik maiatzera loratzen da eta fruituak udazkenean eta neguan heltzen dira.

HABITATA ETA HEDAPENA: Mediterranea inguratzen duten herrialdeetan dago hedaturik eta hainbat motatako basoetan azaltzen da, artadi, karraskal, harizti, etab.etan, eta batzuetan sastrakadietan ere bai. Euskal Herrian ia alde guztietan aurkitzen da. Erratz latzak egiteko da herri-mendikuntzan aperitibo eta diuretikoko gisa erabili izan da.



SMILACEAE FAMILIA



Landare igokari kiribildunak, belarkarak edo

apur bat zurezkoak, batzuetan belarki tenteak edo zuhaiska adartsuak, errizoma lodi eta sarritan tuberoso batetik jaioak. Hostoak jeneralean txandakoak eta txortendunak, edukiz 3-7 nerbio nagusi eta nerbiazio sekundarioa erretikulatuta. Loreak normalean galtzarbeko ginbailetan, erregularrak, sexubakarrak edo hermafroditak; lorebildukin bikoitza, edukiz bakoitzak 3 pieza, petaloideak, askeak edo ionean soldatuak; 6 estanbre, askeak edo harizpietatik tepaloei soldatuak; obulutegia superoa, normalean trikarpelarra; 3 estilo edo, batzuetan, bakarra eta estigma kapitua edo trilobatua. Fruitua baia erakoa, 1-3 hazikoa.



Bere baitan 12 bat genero eta 300 espezieetik gora hartzen ditu, gehienak eskualde tropikal eta subtropikaletan banatuak eta batzuk eskualde epeletan. Baditu zenbait espezie medikuntzan aplikazioa dutenak.

Slimax generoa

Landare igokariak, sarritan laran-tzadunak eta zurezkoak oinean. Hostoak bakunak, txandakatuak eta iraunkorak izaten dira eta txortenean 2 kiribik edukitzen dituzte oinetik hurbil, hostoaren kontrako aldera hazten direnak. Loreak txikiak, periantoko segmentuak askeak, zuri edo berdeskak. Baien haziak leunak eta distiratsuak.

ENDALAHARRA

Smilax aspera

DESKRIBAPENA: aihenbelarra, luzeran 15 m artekoa, lurpeko errizoma luze, adartsu eta zuriska batetik jaioa. Zurtionak flexulosoak, angelutsuak, arantzagabeak edo, sarriagotan, euskarriari itsasteko balio dioten arantza gakodunez armatuak. Hostoak larrukarak, ilegabeak eta distiratsuak, 11 x 10 cm aeterainokoak, formaz aldakorak, baina sarritan oin kordatu, hastatu edo sagitatuaren gainean pixkanaka estutuak; jeneralean arantza txikiak dauzkate txortenean, ertzetan eta azpialdeko nerbio nagusietan. Loreak sexubakarrak, faszikulu edo ginbail ia-eseri zintzilikarietan bilduak eta periantoko segmentuak 2-4 mm-koak askeak; arrek estanbreak bakarrik eta emeek estanbre-aztarna an-tzuak eta pistilo oboidea dauzkate. Baia biribilduak, gorriak edo beltzak.


LORALDIA: abuztutik urrira loratzen da.

HABITATA ETA BANAKETA: eskualde mediterraneoan



banatutako landare termofiloa, heskai eta basoetako mendel eta soilineetan bizi da. Euskal Herrian bereziki ugaria da kosta-zirindan, batez ere artadiko giroan, eta isurialde mediterraneoko haran babestu batzuetan ere azaltzen da.

AMARILLIDAZEAK FAMILIA



Europan 6 generoz dago ordezkaturik soilik familia hau, horietan batzu zabal-

ki landuak beren edertasun bitxiarengatik, azpimarra daitezke narkisoak eta txilinbelarrak. Amarillidazeak familia tropikala dira batez ere, jatorriz Afrikakoak eta Hegoamerikakoak nagusiki, nondik bait datorren hazkuntza landare asko.

Oro har landare erraboiladunak, iraunkorak dira, eskapilo hostogabeekin. Hostoak oinaldekoak, lerro-formakoak, xingola-formakoak, haragi-tsuak, loretan direnean ager daitezkeenak ala berdin ez. Loreak bakartiak izan daitezke edo ginbail batean bil daitezke, zeinaren azpian lore begiak babesten dituzten braktea papiroakara bat edo bi garatzen diren. Obulutegiaren gainetik jaiotzen diren sei tepalo dituzte, obulu-



tegi infero bat sortuaz, bere ahai-dekoetatik, liliazeoak, bereizten dituen ezaugarria hau. Euskal Herrian bi genero ditugu ondo ordezkatuak: *Narcissus* eta *Pancratium*, tepaloek utziriko zuloaren barruan tronpeta-formako koroa bat dutelarik. Tepaloekin aurrez aurre kokaturiko 6 lorezil dituzte, *Pancratium*-ean koroaren ertzetik sortzen direlarik. Estigma bakartia apize loditu edo hiru lobuluko batez. Fruitua barnean hazi mintzaireak dituen kapsula

hirukusku batek osa-tzen du.

Gure herriko bi generoak honela bereiztuko ditugu: *Pancratium* (Loreak koroarekin, txuriak, lorezilak koroaren ertzeraz soldatuak) eta *Narcissus* (loreak koroarekin, horiak, krema kolorekoak edo txuriak, lorezilak koroaren barruan).

ITSAS LILIPA *Pancratium maritimum*

DESKRIBAPENA: 60 cm.tako goiera har dezakeen landare bat da. Zabalera 5 etik 20 ra mm.ko hostoak. Lore oso usaindunak, txuriak luzetara 10 etik 15 era cm.rekin; tepalo lerro-formako lantza-formakoak, luzetara 20 tik 35 era mm.ko koroa, ertzean hortz txikiekin.

LORALDIA: uztailatik irailera loratzen da. Erraboil ugari du.

HABITATAK: areatzak, hondartzak...

BANAKETA: *Pancratium* generoko ordezkari bakarra da Euskal Herrian; kostaldeko giroetako tipikoa, Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldeko hareatzetan poblazio handiak erai-ki ditzake.



NARCISUS GENEROA

N*arcissus* generoa da again herri osoan lorazainen artean hobeena ezagutzen diren landare erraboiadunak biltzen dituen. Hazkuntzako espezieez gain, Europa guztian 40ren bat espezie agertzen da banaturik, baina batez ere iberiar penintsula. Zenbait piriniar eta prepiriniar zelaietan benetan alfonbra horiak osatzera hel daiteke. Klasifikapen zaileko generoa da, joan den mendean sarritan errebisatu zena; gaur egun ere konplexua gertatzen da espezieak mugatzea. Bere hazkuntzaren erraztunak eta gizonak saiatu dituen txertakuntzek nahaspilatu egin dute bere klasifikapena. Guztietarik espezie guztietan gutxi gora behera bat datozten ezaugarri orokor sorta bat lor genezake. Landare erraboiadu-



nak dira, iraunkorrak, taldeka edo bakarka; oinaldeko hosto xingola-formakoekin, launak, akanalatuak edo biribilduak. Lore bakartiak edo aldebakarreko infloreszentziatan eskapo afiloe-kin eta lorea agertzen irekitzen den leka berdeska papiroka batez inguratutako lore begiekin. Sei tepalo berdina ditu, koroa batean bukatzen den hodi tepalino osatuaz oinaldean elkarturik. Hodi tepalinoaren goialdean soldaturiko sei lorezil, koroaren barnean sarturik.

Fruitua hirukuskua da.

Euskal Herrian 8 ren bat narkiso espezie agertzen dira, guztiak udaberriko lorapenezkoak.

NARCISUS ASTURIENSIS

DESKRIBAPENA: 5-15 cm-ko landare txiki erraboiakara, hosto estu eta luzangak dituen. Lore bakarra du, kolorez horia, itxura zilindrikoduna eta aho ondulatuduna. Lorea beherantz okertuta egon ohi da.

HABITATA: mendiko larreak eta harkaiztietako erlaitz belartsuak. Landare bakana denez, “*Euskal Autonomi Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan*”, “*Interes Berezikoa*” kategorian sartuta dago.



LORALDIA: otsailetik apirilera loratzen da.

HABITATA: sastrakak, harkaitzak, mendialdeko larreak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula iparraldeko endemismoa.



NARCISUS BULBOCODIUM

DESKRIBAPENA: lore bakarti, handizkoa, enbutu moduko koroa zabalekin eta tepalo txikiekin, hostoak ihi-formakoak, pentzetan, harritzatan, txilardietan, lur heze eta azidoen gainean (silizezkoak) toipa dezakegu.

Zurtoinak: 15 cm-rainoko garaiera.

Hostoak: Erraboi bakoitzak 3-4 hosto lerro-formako, zuriska edo arre, 15-20 mm-luzekoak.

Loreak: Hori zurbilak, horizontalki egoteko joerarekin, tepaloak ia lerro-formakoak eta puntazorrotzak; koroa konikoa, 25 bat mm-rainokoa; lorezilak ez dira ertzetik kanporatzen.

LORALDIA: otsailetik apirilera loratzen da.

HABITATA: sastrakak, harkaitzak, mendialdeko larreak.



ANBULU GAIZTOA

Narcissus pseudonarcissus

DESKRIBAPENA: goieran 40 cm.ak hartzen ditu, ordeka karekizkoetan kolonia zabalak osatzen ditu, pagadi eta haltzadien urkoko erreka ixkinetan bezala. Hosto berde urdinskak ditu edo berde grisak, zabalera 6 tik 12 ra mm. Kordotx arrea, luzetara 20 tik 60 ra mm.koa. Lore bakartiak, horizontalak edo zintzilikariak, jeneralean bi koloretakoak; tepalo hori hitsak eta koroa kolore biziagokoa.

Loreak gehienetan bakartiak, horizontalak edo zintzilikariak, tepaloak hori zurbilak, koroa hori biziagoa. Koroa 35 cm-rainokoa luzean, muturra oso gutxi zabaldua.

HABITATA: pagadiak, urkidiak eta larre hezeak, belardiak, basoak, harkaitzak.




LORALDIA: landare hau neguaren amaieran loratzen da, basoa oraindik lotan dagonean. Tapiz koloretsua sortzen du lurzorua gainean, sarritan argia bilatuz elurraren artean.

OHARRAK: *Narcissus* espezie guztiak izan ziren erabiliak antzinean medizinan eta bere erraboila zeharo toxikoa da.

Narcissus-eko osterantzeko espezieak bereizten zailagoak dira eta honela agertzen dira: *Narcissus assoanus*, hegoaldean; *Narcissus triadrus*, Araban, Nafarroan eta Bizkaia oso lokalizatua; *Narcissus minor*, mediterranean mazeletan eta bertan lokalizatuago *Narcissus asturiensis*.

IRIDAZEAK FAMILIA



Monokotiledoneo familiazarra, espezie gehienetan balio ornamentala

du. Mundu guztian 70 ren bat genero banatzen dira, batez ere erregio tropikaletan eta epeletan. Europan hiru genero daude oso erabiliak lorazentzan eta gainera naturalki aurkitzen direnak, eta dira: *Iris*, *Gladiolus* eta *Crocus*; Euskal Herrian agertzen diren beste genero batzu dira: *Sisyrinchium*, *Romuela* eta *Tritonia*.

Landare iraunkorrak dira, errizoma, erraboila eta tuberobulboekin. Hostoak txandaka edo oinaldean abanikoz; ez orri ez peziolo bereizturik eta arrunkti lerro-formakoak. Zurtoin loremaileak ongi garatuak eta adarkatuak zenbait lorerekin, edo oso murriztuak, lore bat edo birekin bakarrik. Begiak kordotxa deituriko braktea batean sartzen dira. Lore erregularrak edo irregularrak sei tepalo askeekin edo soldatuekin hodia eratuaz, berdina, ezberdina edo barneko hiru berdinekin, neurritz ezberdina kanpoko hirurekin; hiru lorezil; behekaldeko obulutegia eta estiloa zatituz hiru adar harikara edo zabal eta launekin petaloak irudikatuz. Fruitua hazi ugari duten hiru kuskuekiko kapsula bat da.

Generoa iritxi ahal izateko datorren gakoa jarrai genezake: *Gladiolus* (loreak simetria planu bakarrarekin, irregularrak, arro-xak); *Crocus* (Loreak zuzenean tuberobulbotik jaiotzen direnak), *Romulea* (zurtoinak sekzio biribildukoak), *Iris* (hosto lerro-formakoak, akanalatuak, obulutegi trilokularra) eta *Sisyrinchium* (Zurtoin hegalezkoak).



Crocus generoa

Crocus generoak 100 en bat espezie ditu, 40 inguru Europan eta bi bakarrik Euskal Herrian. Lore talde oso ezaguna da lorezainen artean bere lore ikusgarriengatik, nola udazkenean hala udaberrian agertzen direnak. Kopuru haunditan agertzen dira basa egoeran, udaberrian elurra urtzen denean agertzen diren loreetan lehenatarikoa delarik. Azafraia (*Crocus sativus*), azafraia azafraiaren iturria izateagatik antzinatik zaintzen diren krokoetako bat da.

Lorexakia, kolore eskarlatazkoa, landarearen zati aprobetxagarria da; ateratzen da eta lehortzen jartzen da. Kolorantea, kolore hori bizikoa, uretan gauzatzen da eta lortzen den soluzioa janei zaporea ematearren edo jantziak tindatzeko erabiltzen da. Landuagoa aintzinatean, gauregun erregio batzutura murrizturik dago. Landare oso ilarroak dira, iraunkorrak, lurrazpiko tuberobulboekin, bakartiak, oinaldeko hosto akanalatuak, balaren erdian lerro txuri batez. Lore oro har



bakartiak, pedizelo oso motzarekin fruktifikazioaren garaian luzatzen dena kapsula kanporantz bultzatuz. Sei tepalo ditu, arrautz-formakoak, denak antzekoak; barneko hirurak kanpokoak baino zerbait txikiagoak, guztiak elkartuak hodi tepalino luze bat osatuaz; hiru lorezil soldatu tepaloen oinaldean. Estiloa hiru adar edo gehiagorekin. Fruitu hirukuskua hazi ugarirekin. Genero hau konplikatu da bere bereizketarako, horretarako tuberobulboaren kanpoko ezaugarriak erabiltzen direlarik. Gure herrian bi espezieak honela bereizten dira: *Crocus nudifolius* eta *crocus versicolor*.

AZAFARI ZANGARRA

Crocus nudiflorus

DESKRIBAPENA: azafrai zangarra tuberobulbokiko landarea da, herrestadarrak emititzen ditu bejetazio narrioak egitera iritxiaz. 3 tik 4 ra hosto darama-tza, lorapenean peituan, udaberrian agertzen direnak, zabalera 2 tik 4 ra mm.koa lerro txuri fin batekin. Loreak kolore more purpurazkoa, zainekin ala gabe; lore hodia oso garatua 20 cm.tara hel daitekeelarik. Lorezilak antera horirekin eta harizpi txurirekin. Lorexaki zatitua adar ugarietan, motzak eta anaranjatuak.

LORALDIA: irailetik azarora loratzen da. Udazkenean loratzen diren landaren arteko lore ikusgarrienetakoa du.

HABITATA: lurralde osoan herriaren alderdi meridionalean ezik, zelaietan, txilardietan, animalien bazka eta pasuko zonetan; adeibera sustratuarekiko. 0 tik 1.600 m.tarako goiera.

BANAKETA: Europako hegomendebaldea.



CROCUS VERSICOLOR

DESKRIBAPENA: 10-18 cm-ko landare errabiolakarra. Bere hostoak, luze eta estuak, loraldiaren ostean agertzen dira, neguaren amaieran. Lore handi bakartia du, hodi itxurakoa beheko aldean. Lore txuriskak ditu. Kolore morezko zerrendaketa leun batez.

kolore krema zerrenda brioletekin kanpokaldean. Beste krokoa, Nafarroako ekialdean



ageri dena soilik, *Crocus versicolor* subsp. *marcetti* da. Zalantzarik gabe familia honetan lehendabizi loratzen den landarea da, urtarrian aurki daitekeelarik loreak igortzen.

LORALDIA: irailetik urrira loratzen da.

HABITATA: tipikoa zelaietako eguteratan eta ameztegietatik datozten soro harrietsuetan. Ez da oso naharoa.

ROMULEA GENEROA



Romulea generoa, aurrekoaren antzekoa Europan, Ipar Afrikan eta Asia Mendebaldean agertzen da 20 ren bat espezieekin. Afrika tropikalean gutxi batzu agertzen dira, kontinente honen hegoaldean 70 espezie inguru, lore handi eta kolore ederrekoekin, hazten diren artean. Europear espezieak lur ertainetara loturik daude itsasotik hurbil.

Landare txikiak dira, tuberobulboarekin eta gutxi gora behera biribilak diren oinaldeko bi hostoekin, lau ildo longitudinalekin; oinaldeko hosto ez gain beste zurtoineko batzu dituzte, ale oso ertainetan oinaldekoekin nahas daitezkeelarik. loreak krokoenen antzekoak dira, baina txikiagoak dira, lore hodi motzago batekin eta zurtoin berde oso motx batekin. Romulea-ren loreak bakakna sortzen dira braktea batetik eta brakteola batetik, berdeak edo papirokarak izan daitezke. Hiru lorezil dituzte eta estiloa sei adarretan zatiturik. Lore zurtoinak, haziak helduak direnean, kurbatu egiten dira bitxiro, kapsula lurra ukitzera ailegatzen delarik. Landare arraroa dira lurralde osoan; soilik bi espezie agertzen dira Euskal Herrian: *Romulea bulbocodium* eta *Romulea columnae*.



ROMULEA BULBOCODIUM

DESKRIBAPENA: luzetara 2 tik 3,5 era cm.ko loreak ditu, tepaloi zorrotz, txuri edo lilekin, ezdarri horia eta berdeskak kanpokaldetik edo morez zerrendatuak. Lore hodi txikia, luzetara 1 etik 2 ra cm.ko braktea, berdea, ertz papirokarra eta arrea, brakteola papirokarra, arreska edo gorriska.

LORALDIA: otsailetik apirilera

HABITATA: Euskal Herriko mendebaldera murriztua; gailurretan soro haizeatuetan eta karekizko edo silizezko lur harrietsuetan hazten da. Ez du goieran 1.000 m.tik gora hartzen.



IRIS GENEROA



Familiari izena ematen dioen generoa oso hedatua dago eta espezie kopuru haundiena erakusten du. *Iris* generoa hain zuzen ere, ongi ezaguna eta oso hedatu hazkuntza ornamentalari dagokionez. Lore konplikatzuko landareak dira, oinaldeko hodi bati soldaturiko sei tepaloz osaturik. Barnekaldeko hiru tepaloak tenteak dira eta kanpokaldekoak linbo deflexoarekin horizontalki kokatzen dira. 6 tepalo koloreztatuz gain, estiloaren hiru adarkadurak agertzen dira, zabalak eta koloreztatuak, tepaloen antzarekin. Kanpokaldera kurbatzen dira kanpoko tepalo bakoitzaren gainetik eta adar estilareoak deitzen zaie. Adar estilar bakoitzak apizea zatiturik du bi lobulotan eta estigma gorderik lorezilaren ondoko puntu batean. Hiru lorezil ditu, bakoitza adar estilar bat eta kanpokaldeko tepalo baten artean. Disposaketa honek polinizaketari laguntzen dio, batez ere erleena, nektarraz erakaririk estiloak eta kanpoko tepaloak osatzen duten tunelean sartu behar dutelarik, polena bere bizkarrean pilatzen delarik; beste Iris bat bisitatzean polen puska bat lorearen estigman uzten dute.



Lore begiak bi brakteatan zatitzen den kordotx berde, txuri edo papirokarra batez estalirik daude. Ipar Hemisferioak 250 ren bat espezie du, hogeitamar agertzen dira Europan eta hauetarik soilik sei aurkitzen ditugu Euskal Herrian giro ezberdinetan banaturik.

6 espezie hauen bereizketa, nahiz ez den oso konplexua, gerta daiteke konprometitua besteren batekin. Gako honekin zailtasunak ekiditen ahale-

ginduko gara:

Iris germanica (loreak kanpokaldekotepalo bakoitzaren erdian bizarrarekin)

Iris latifolia (errabiolarekin. Lore urdinskak, erdialdean horiz zilianduak, lore handiak luzetara 5 mm.takoak).

Iris graminea (lore hodia luzetara 2-5 mm.takoa, frutaren usaina, lorea gaingitzen duten hostoak).

Iris spuria (lore hodia 7-15 mm.takoa, hosto motzagoak).

Iris pseudacorus (lore hori biziak, zona lokaztuetan).

Iris foetidissima. (Lore horiskak eta more zikinak; usain txarra).

Sei espezie hauek lasaiki zabalduak daude lurralde guztian, gehientxuenak eskasak eta arraroak direlarik.

OSTARGI BELAR HORIA

Iris pseudacorus

DESKRIBAPENA: putzu, erreka, ubide eta oro har lur oso hezeetako tipikoa da ostargi belar horia (*Iris pseudacorus*), bere banaketak Asia hartzen du. Bere tamainuarengatik nahastezina, 2 m.tako goierara heltzen delarik. 5-10 lore hori bizi ditu kanpokaldeko tepaloen erdialdean marka arreekin.

Zurtoinak 60-120 cm-ko garaiera, pitin bat zapalduak. Hostoak oinaldekoak, 90 cm-rainokoak, pitin bat berde-urdinskak, erdiko nerbio nabaria.

Loreak 4-12 lore hori, kanpoko lakainak 5-7 cm-koak, bnarneko lakainak 2-3 cm-koak.

LORALDIA: ekainetik uztailera loratzen da.

HABITATA: leku hezeak.



MELIRA

Iris foetissima

DESKRIBAPENA: 30-80 cm-ko landare errabiolakara, kiratsa botatzen duena igurzterakoan. Hosto iraunkor-
rrak ditu oinaldean, luzeak eta distiratsuak. Zurtoinetik
1-5 lore handi ateratzen dira, kolorez boiletak eta tonu
horiskadunak. Haziak kolorez gorri-laranja biziak dira.
Loreak 1-5 lore, bioleta zikinduak, horiztatuak.
Landare toxikoa da eta bere izen zientifikoa (*foetidissi-
ma*) igurzterakoan botatzen duen kiratsetik dator.
LORALDIA: maiatzetik uztailera.
HABITATA: hariztiak, baso mistoak, hesi biziak eta
erreka bazterrak.
BANAKETA. Europako hegoaldea eta mendebaldea.



LILI URDINA LATIFOLIA


Iris latifolia

DESKRIBAPENA: zurtionak 50-70 cm-ko garaiera;
pitin bat zapalduak. Hostoak oinaldekoak, 60 cm-rai-
nokoak, pitin berde-urdinskak, ediko nerbio naba-
ria. Loreak 2-3 lore urdin, kanpoko lakainak 5-7 cm-
koak, barneko lakainak 2-3 cm-koak. -
LORALDIA: ekaina eta uztaila artean
loratzen da.

HABITATA: leku hezeak. Soroak, bideak, belardiak.
BANAKETA: arraroagoa da lili urdina (*Iris latifolia*),
gure lurraldean errabioladun bakarra, Nafar Pirinioko
mendi gorenetan bezala agertzen da kostaldeko giro-
etan itsasora begira, erdialdeko mendi handietatik
pasatuaz, goieraz 1.300 m. tatarik gora.



GLADIOLUS GENEROA



Landare ornamental moduan lilia garrantzizkoa baldin
bazen, orain dagokigun generoa, *Gladiolus*, loradende-
tan ez da gutxiagotako.

Jardinetan oso zaindua, hegoafrikar espezieetatik datozte, behar bezala
hibridaturik haiek. Gauregun lortu den kolore
naharotasuna ez du erakusten basa espezie
bakar batek ere.

Afrika meridionalak eta tropikalak 100 en bat
espezie du; Europan eta mendebaldar Asian
ere agertzen dira ordezkariak, afrikarrak
baino txikiagoak dira eta ez hain ikusgarriak,
jardinetan gutxiago zaintzen direlarik.
Europak zazpi espezie baditu, horietarik bi
agertzen dira Euskal Herrian.

Gure ezpatalore espezie bi: *Gladiolus illyricus*
eta *Gladiolus italicus*, zailak dira bereizten.



GLADIOLUS ITALICUS

DESKRIBAPENA: ezpataloreak zuntzeko geruzez estaliri-
ko tuberosulak du; 3 tik 5 era hostoekin, lorea hurbiltzen
garen heinean hestuagoak. Lore galburuak lasaiki edo den-
tsoki kokaturiko 1 etik 20 ra lore ditu. Lore irregularrak, hori-
zontalki kokatuak, hodi oker bat emanaz oinaldean soldaturi-
ko sei tepaloekin; gorantz kurbaturiko lorezilak eta goikalde-
ko tepaloaz azpitik kokaturik; estigma apize hirukuskuarekin.
LORALDIA: martxotik ekainera loratzen da.
HABITATA: ameztegien zuriguneetan hazten dira eta haz-
kuntza soroen bazterretan.
BANAKETA: arraroak dira lurralde osoan, mediterranean
mazelan



ARAZEOAK GENEROA



Arazeoek familia haundi bat
osaten dute, batez ere tropi-
koetan eta, bere itxura oso aol-
dorra den arren, kordotxa eta espedizearenga-
tik ezagutzen dira, beste familiek aurkezten ez
diten ezaugarria hau.
Aroen loreek maiz usain txarra dute eta euliek
polinizatzen dituzte. Kordotxak berdeskak edo
kolore arrekoak dira.

Espezie batzu landu egiten dira, hara nola:
Phylodendrom, Montsera. Beren hostoia erakargarriak barne deko-
raziorako baliagarriak bilakatzen ditu; tropikoetatik datoz. Suge belar-
ra (*Arum maculatum*) da europearren artean ezagunena.
Arazeoak landare iraunkorak dira eta ilegabeak, tuberkuloekin edo
erizomekin; hosto guztiak oinaldekoak dira, lantza-formakoak edo
arrautz-formakoak, hosto osoari gezi-formako itxura ematen dioten
oinaldeko lobulu batzurekin. Lore oso txikiak galburu lodi edo espe-
dize batean, apize luzatuarekin apendizera deritzona osatuaz.
Espadizea sarritan apize akaputxonatu bat aurkezten duen hodi-for-



mako kordotx tente batez inguratutik dago. Lore
niminoak petalorik gabe oro har eta sexubakarre-
koak; lore arrak biltzen dira eta lore emeen gaine-
an kokatzen dira; maiz agertzen dira ile itxurako
estruktura antzu batzu. Intsektu erakarriek ile an-
tzuen artetik sartzen dira eta ezin irten izaten dute.
Lore emeak irekitzen dira lehendabizi, gero arrak
eta polena uzten dute intsektuen gainean.
Emalkuntza burutu denean, ile antzuak lehorte
egiten dira intsektuei irteera utziaz. Infruteszentzia

kolore biziko baia talde batez osaturik dago (suge jana). Europan 8
ren bat genero dago, zeinetarik Euskal Herrian bi bakarrik ditugun.
Batez ere kordotxen neurriarengatik bereizten ditugu: *Arisarum* eta
Arum.

Arisarum generoa

Dragontea txikia (*Arisarum vulgare*) Arisarum generoko espezie
bakarra da, Euskal Herrian gutxitan topatzen duguna. Giro leu-
netakoa da izatez

DRAGONETA TXIKIA

Arisarum vulgare

DESKRIBAPENA: landare fñarroa edo ertaina, goiera
20 tik 40 cm. tarakoa. Arrautz edo bihotz-formako hos-
toak ditu, kolore berde hutsekoa edo narrio ilunekin.
Kordotx berdea edo arre atxokolatatua, txikia, luzetara
4 tik 5 ra cm., apize akaputxonatuarekin eta motzki
zorrotzarekin; espadize berdeska kordotxaren ahoa
gaintitzen duenlarik piska bat. Fruituak baia berdeska
batzu dira.
Kordotxal 4tik 5 era cm. luzetara, apize akaputxonatua
Espezie bakarra da, Euskal Herrian
LORALDIA: abendutik apirilera loratzen dira.
Begetazio talde zabalak osatzera hel daiteke.
HABITATA: baso hezeak, hesi biziak eta larre hezeak.
OHARRAK: landare zertxobait pozoinduna.



ARUM GENEROA

Arum generoa da arruntena Europan eta erraz eza-
gut daiteke bere gezi-formako hostoengatik eta
bere kordotx berdeska haundirengatik, baina apize aka-
putxonaturik gabe edo behinik behin ez arestiko espe-
ziean bezain nabari.

Landare iraunkorrak dira, tuberosak, oso ñarro-
tik ertainera, tuberkulo luzatuekin eta aldebakarreko kimuekin.
Hosto gutxi gora behera gezi-formakoak, narriokin edo
gabe. Kordotx berdeak, zertxobait purpura, beltz edo
krema kolorekoa, arruntki fruituarekin luzatzen den zur-
toin motz batekin; espadizeak lore arrak, emeak eta an-
tzuak aldenduak ditu, apizea osatuz luzatzen direlarik.
Fruituak kolore gorrikoak dira.

Euskal Herrian erraz bereizteko moduko bi espezie
agertzen dira: *Arum italicum* eta *Arum maculatum*.



SUGE BELARRA

Arum italicum

DESKRIBAPENA: 20-60 cm-ko landarea. Gezi itxuradun
hosto distiratsu handiak ditu, udazkenean edo neguan irteten
direneak ditu, udazkenean edo neguan irteten direnak. Loreek
galburu luzanga bat eratzen dute, papiro itxurako braktea zuri-
berdaska batez inguratuta dagoena eta lore bera dirudiena.
Fruitu biribildu gorri eta distiratsuen sorta luzea ematen du.
Fruituak pozoitsuak dira eta gezurra den arren, oso zabal-
duta dago sugeen janaria direnaren sineskeria.

LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen da eta itsasoko maila-
tik 1.000 m.ko goieraraino banatzen da.

HABITATA: baso hezeak, hesi biziak eta larre hezeak.

BANAKETA: Europako mendebaldea eta hegoaldea.

OHARRAK: fruituak pozoitsuak dira eta gezurra den arren,
oso zabal-
duta dago sugeen janaria direnaren sineskeria.



AROA

Arum maculatum

DESKRIBAPENA: neurri txikia-
goko landarea, udaberrian gara-
tzen ditu bere hostoak, kolore
berde izarniatsu, bizi batekoak,
narrio beltz eta purpurekin.
Kordotxa berde hitza, purpura edo
tonalitate purpurekin, luzetara 10
etik 25 era cm.; espadizea kordo-
txaren erdian, kolore purpura bizi-
koa eta krema kasuren batean.
Fruituen galburuak luzetara 5 cm.
baino gutxiago ditu.

Aroak baia pozoinduek ditu eta bere zukua mingotsa eta




narritagarria da. Aintzinatean
tuberkulua ganaduaren elika-
dura bezala erabilia; horietatik
lortzen den almidoia erropak
almidonatzeko erabiltzen da.

LORALDIA: martxotik maia-
tzera loratzen da.

HABITATA: mendi aldeetan,
batez ere pagadi, hariztedi eta
eskaski artadietan. 500 etik
1.100 m.tako goieran agertzen
dira.

BANAKETA: Aroa arruntena da
Europan eta herri septentrionalenak har ditzake. Euskal
Herrian aurrekoa baino eskasagoa da.



DISKOREAZEOK FAMILIA

Belarki dioikoak, igokariak, hosto bakun eta osokoak, lur-
peko erriozoma edo tuberkulu batetik jaioak. Loreak txi-
kiak, bertizilo, galburu edo luku axilarretan; periantoa iraun-
korra eta bertan 6 tepalo, berdintsuak eta petaloideak, sarri-
tan hodi eran oinean soldatuak; 6 estanbre eta obulutegi infe-
roa, trilokularra. Fruitua kapsula edo baia erakoa.

Bere baitan 6 genero inguru eta 600 espezie-
tik gora dauzka, eskualde tropikal eta subtropikaletan banatuak, eta bakar ba-
tzuk lpar Hemisferioko zona epelean. Zenbait espezie,
Dioscorea generokoak, eskualde tropikaletan kultibatzen
dira, beren tuberkulu jangarriengatik.

Familia handi bat da hau, Euskal Herrian urri errepresentatu-



ta dagoena, espezie bakar bat soilik; espezie gehienak
tropikoetan aurki-tzen dira, Europan bakarrik lau daude-
larik.

Tamus generoa

Tuberkulu handiak, zilindriko-oboideak, sarritan irregu-
larrak dituzten landareak. Hosto txandakatuko zurtoin
birakariak. Loreak luku axilarretan; lore arren periantoa
urtzeolatu-kanpanulatua, harizpietatik oinari soldatuta-
ko 6 estanbre dituen; emeena, 6 segmentu txiki estuz
eratua. Fruitua baia erakoa, hazi biribilduek dituen.

APOMAHATSA

Tamus communis

DESKRIBAPENA: aihenbelarra da eta dauzka zurtoi-
nak luzetaraka ildaskatuak, ilegabeak, noizbehinka
adarkatuak, luzeran 4 m artekoak. Hostoak 8-15 x 4-11
cm, zabalki obatuak eta luzeki akuminatuak, oinean
kordatuak, 2-10 cm-ko pezioloan; berde ilunak distira-
tsuak, edukiz 3-9 nerbio, kurbatuak eta adarkatuak.
Loreak 3-6 mm diametroan, berde-horiskak. Baia biri-
bilduek, 10-12 mm diametroan, gorriak, inoiz horiskak.

LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen da.

HABITATA: Mediterranearen arroa inguratzen duten
herrialdeetan dago banatua, Europako erdialderaino
iritsiz. Hainbat motatako basoen heskai, mendel eta
soiluneetan bizi ohi da, hala nola, harizti, artadi, karras-
kal, etab.etan.

BANAKETA: Euskal Herrian ia lurralde guztian azal-
tzen da, eta urrituz doa desagertu arte hegoaldeko leku
aridoenetan eta mendi garaienetan.



ORKIDAZEOKAK FAMILIA

Orkidea izenak landare exótico talde batetan pentsatzera eramaten bagaitu ere, lore handikoak eta kolore deigarrikoak, kontutan izan behar dugu Euskal Herria dela Penintsula Iberika osoan familia honek ordezkari kopuru handiena duen zonetako bat eta gehixego konkretatuaz, Nafarroa da probin-tziarik aberatsena. Orkidea lore naharotasun handia duen familia bati dagokio. Especie exótico horietatik hasita, deigarriak oso, niminoak baina ez horregatik karma gutxiagoko orkideataraino, present gure lurrean.

Orkideak mundu guztian daude zabalduak, egregio hotz polarrak kenurik, 20.000 tan zifratzen den especie kopuru erraldoia hartuaz, asko tropikoetako giro heze eta epeletara murriztarik. Hiru orkidea moeta agertzen dira: vatus lurekoak, beste vatus saprofitoak eta hirugarren vatus epifitoak. Lehendabizikoek, lurekoek, zolua konkistatu dute eta bere bitartez lortzen dute heuren elikadura; bigarren taldekoek, lur gainean baita ere, beste izaki batzuren lagunaza behar dute beren dieta osatzeko eta horregatik parasitatzen dituzte beste landare vatus. Azkenik orkidea epifitoak dauzkagu, baso tropikaleko giro hezeetara errelegaturik, argira heltzeko zuhaitz adar eta enborretan kokatzen direlarik, escasa zuhaitz tropical hauen doselaren azpian; ez dituzte parasitatzen, baizik eta eustarri bezala erabiltzen dituzte. Euskal Herrian lehendabiziko bi taldeak ditugu; logiko ki hirugarrena ez da agertzen.

Europar 120 especie inguru aurkitzen dira. Guztiak lurraldekoak dira eta zona zingiratsuetan bici dira, zelaetan edo basoetan, lur moeta ezberdinekin eta behe lurretatik gure mendieta-ko goiera gorenenetaraino. Asko Europa meridionaleko herri epelatar murrizturik daude, beste vatus Iparraldean bakarrik agertzen dira, espécimen zoragarriak dituztelarik.

Zuekoa (*Cypripedium calceolus*) mendebalder Europako orkidea adibidea da, bere bilketa haundiegarengatik geroz eta eskasagoa dena, bai eta bere hazkuntza lekuak hondatzen ari direlako. Europako zenbait herri zenbait orkidea especie babespean du.

Orkideen garapena eta hazkuntza elkarte batera ligaturik dago zenbait onddoekin. Elkarte hau ezinbestekoa da hazien ernal-



kuntzarako eta landare gazteentzako.

Onddoaren hifek zenbait nutriente ateratzen dute lurretik eta hazten ari diren landareen sustrae gazteei uzten dizkie beren nutriziora kontribuituz. Orkideak hazkuntza geldozko landareak



dira, loratzen neurri egokiena hartzeko urtek behar izaten dituztelarik; vatus lorapenaren ondoren hiltzen dira. Fruitua hazi oso txiki ugari osatzen da, haizeak trasportatzen dituelarik.

Familia honen ezaugarri kurioso bat, present especie gehienetan, loreak espermentatzen duen biraketa da, 180 gradutan jiratuaz; hau da, goiko petaloa, arruntki ezpain batean modifikaturik dagoelarik (labelo), behekaldean kokaturik aurkitzen da.

Euskal Herriko orkidea guztiak iraunkor-rrak eta itxura errabioladuna duten erri-zoma edo tuberkuloak dituzte. Hostoak espiral-forma hartzen du oinaldean pilatzen delarik, oinaldeko erroseta bat osatuaz; zurtoinean zehar kokatzen direnek oinaldekoen antzeko itxura eduki dezakete, edo eta braktea itxura eduki dezakete. Orkidea saprofitoek ez dute klorofilarik eta deskonposatzen ari den materia bejetalaren gainean edo humua gainean garatzen dira, zenbait onddoekin asoziatuaz. Loreak, oso naharoak, matsalko globulutsu batean, galburu luze batean lekutzen dira edo berdin bakarka edo kopuru txikietan agertzen dira. Obulutegia, kasu gehienetan berdea, pedunkulu baten antzekoa da; bihurriturik dago, inferoa da eta lorearen oinaldean lokalizatzen da, petaloen eta sepaloen azpitik. 3 sepaloz berdea ditu, edo beste kolore batekoak, petaloak bezain luzeak edo handiagoak. Barruan aurkitzen dira 3 petaloak, hauetako batek ematen du labeloa. Beste bi petaloak koloreztatuak egoten dira eta maiz sepaloz baino neurri txikiagokoak dira. Goikaldeko sepaloa eta bi petalo hauek especie askotan txano-txo bat egiteko joera dute. Ezpaina edo labeloa estru-



ra konplikaturikoa da, normalean lorearen behekaldean dagoelarik, nahiz eta goikal-

dean egon dezakeen; askotan lobuluak edo gandorak, lerroak, punteatuak edo zenbati espeziatan intsektuak irudikatzen dituzten zona izarniatsuak bezalako markak erakusten ditu, polinizaketarako errakargarria egiten dutelarik. Alde honetatik ebolutiboki familiarik aurreratuena errepresentatzen dute. Labeloa hedatu egiten da neurri aldakorreko espeloi bat osatuaz, kofaduna, nektarra gordetzen duena eta lorearen atzekaldean nabarmentzen dena, normalean forma globotsuz. 1 edo 2 lorezil ditu, estigmara fisiomatuak zutabe bat osatzen. Polena polinioak deituriko masa separatuetan lokalizatzen da. Zutabeak bi estigma izaten ditu eta hirugarrena rostelo deritzen moko batean modifikaturik aurkitzen da, estigmen eta polinioen tartean kokaturik, honela autopolinizaketa ekidinaz.

Hiru kuskukiko kapsula batek osatzen du fruitua eta hazi nimino ugari dago bere barruan.

Landare hauek ez dira bilgarriak. Oso gutxitan landu daitezke. Asko legez babesburik daude herrialde askotan, gauregun eskasak direlarik. Beren garapena gaizkatu begiratzen Isasi behar dugu; gure oinordekoek eskertuko digute. Euskal Herria aberatsa da espeziatan; Europak 120 ren bat baldin baditu, horietarik 90 inguru hemen jaiotzen dira 21 generotan jasorik eta giro naharoenetan banaturik. *Ophrys* eta *Orchis* dira espécimen gehien dituzten generoak, beren hibridatze zaletasun handiaren ondoriozko subespecie ugariarekin.



EPIPACTIS GENEROA

E*pipactis* generoak bost espezie ditu hemen ordezkatuak. Gainerakoak bezala landare iraunkorrak dira, errizomatosoak eta taldeak osatuaz agertzen direnak; zurtoin hostodunak dituzte hosto garbito plegatuekin. Loreak horizontalki edo zintzilika kokatuak, pedizeloarekin, matsalko lasetan, aldebakarrekoak; sepalo eta petalo aldenduak, hedatuak; labelo ahurra, erdialdean artikulatua, muturra beherantz okertua dutelarik; ez dute espoloirik. Espezieen arabera vainilla usain biziagoa ala motelagoa duten loreak.



EPIPACTIS PARVIFLORA

DESKRIBAPENA: 10-15 cm-ko landarea, zurtoinaren gainaldea pubeszentea duena. 3-6 hosto obal-lantzeolatu ditu zurtoinaren beheko aldean eta tonu biolazoea izan ohi du. Loreak txikiak dira eta infloreszentzia lasai eta luze batean ageri dira. Sepaloak eta petaloak berde-horiskak dira. Labeloa arrea da barnealdean eta berde zuriska arrosaz orbandua kanpoaldean.

LORALDIA: maiatzetik uztailera.

HABITATA: artadi harri-tsuak.

Banaketa: Iberiar penintsulako endemikoa. Urkiolako Natur Parkea landare hau aurkitu deneke Bizkaiko leku bakarra da. Urkioloako artadietan beste orkideo oso bakan batzuekin batera agertzen da (*Epipactis microphylla*, *Limodorum abortivum*...).



EPIPACTIS MICROPHYLLA

DESKRIBAPENA: 15-55 cm-ko landarea, zurtoinaren gainaldea pubeszentea duena. 3-9 hosto obal-lantzeolatu ditu, adabetearteak baino laburragoak edo soilik apur bat luzeagoak direnak. Lore txiki pendularrak ditu, zertxobait bilotsuak, infloreszentzia lasai eta luze batean kokatuta. Sepaloak eta petaloak aurrera begira daude. Labeola txikia da, zertxobait arrosa barrualdean eta berde-zuriska kanpoaldean.

LORALDIA: ekainetik abuztura loratzen da.

HABITATA: artadi harritsuak

BANAKETA: la Europa osoa Asiako hegomendebalderaino.

Urkiolako Natur Parkean landare oso banaka da, Mugarra eta Axbizkarreko artadietan agertzen da.

Urkiolako Natur Parkea eta kostaldeko mendebaldea landare hau aurkitu direneko Bizkaiko leku bakarrak dira. Gorbeia eta Urkiolako artadietan beste orkideo oso bakan batzuekin batera agertzen da (*Cephalanthera damasodium*, *Epipactis parviflora*, *Limodorum abortivum*...).



EPIPACTIS HELLEBORINE

DESKRIBAPENA: 25-60 cm-ko landarea, zurtoinaren gainaldea pubeszentea duena. 3-9 hosto obal-lantzeolatu ditu, adabetearteak baino laburragoak edo soilik apur bat luzeagoak direnak. Lore txiki pendularrak ditu, zertxobait bilotsuak, infloreszentzia lasai eta luze batean kokatuta. Sepaloak eta petaloak aurrera begira daude. Labeola txikia da.

Epipactis helleborine eta *Epipactis violacea* nabarmentzen dira beren koloreengatik, ez dira oso naharoak, gure lurraldean eskasten direlarik.

HABITATA: pagadietan, artado harri-tsuetan hazten dira jeneral-ki edo karekizko zona hezeetan, *Epipactis palustris* bezala.

LORALDIA: ekainean loratzen dira.



EPIPACTIS PALUSTRIS

DESKRIBAPENA: 20-50 cm-ko landarea, zurtoinaren gainaldea pubeszentea duena. 4-8 hosto obal-lantzeolatu ditu, adabetearteak baino laburragoak edo soilik apur bat luzeagoak direnak. Lore txiki pendularrak ditu, zertxobait bilotsuak, infloreszentzia lasai eta luze batean kokatuta. Sepaloak eta petaloak aurrera begira daude. Labeola txikia da, zertxobait arrosa barrualdean eta zuriska kanpoaldean.

LORALDIA: ekainean loratzen dira.

HABITATA: artadi harritsuak.

BANAKETA: la Europa osoa Asiako hegomendebalderaino.



CEPHALANTHERA GENEROA

C*ephalanthera* bakarrik lau espezie biltzen dituen genero bat da, zeinetarik hiru gure lurlean hazten diren; oso lokalizatuak eta arraroak pagadia, artadia eta ameztegiko giroetan; lehentasunez mediterranean mazelan. Landare erakargarriak dira, zurtoin orrikarekin, herrestakariak eta lurraspiko errizoma motzekin. Hosto hestuak, txandakakoak, zenbait zain paraleloekin. Lore eskasak, gorantz zuzenduak, galburu lasetan, eserita edo kasik eserita, kolore txuri edo arroxakoak, ez dute usainik; sepaloak eta petaloak antzekoak, taldekatuak; labeloa petaloak bezala, apize errekurbatuarekin eta goi alderdian gandor longitudinalekin. Espoloia edo motza da edo ez du esistitzen. Klasifikapen bat izan daiteke: *C. Rubra*, *C. Damasonium* eta *C. Longifolia*.



CEPHALAPANTHERA RUBRA

DESKRIBAPENA: 20-50 cm-ko landare liraina, hosto txandakatuak, estuki lantzeolatuak eta oso laburrak dituen. Loreak kolorez arroxaki garbiak dira eta infloreszentzia luzanga lasaia eratzen dute. Obulutegi iletua.
LORALDIA: maiatzetik uztailera loratzen da.
HABITATA: basoak.
BANAKETA: ia Europa osoa.

CEPHALAPANTHERA LONGIFOLIA

DESKRIBAPENA: 15-60 cm-ko landare liraina, 8-10 hosto txandakatuak, estuki lantzeolatuak eta oso luzeak dituen. Loreak kolorez zuri garbiak dira eta infloreszentzia luzanga lasaia eratzen dute. Sepaloak, obal-lantzeolatuak, aurrerantz zuzenduta daude eta muturrean orban horiska duen labeloa gainditzen dute. Brakteak loreak baino luzeagoak.
LORALDIA: apiriletik ekainera.
HABITATA: artadi harritsuak eta alboko sastrakadiak.
BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkea eta Enkartzioetako leku bat landare hau aurkitu direneko Bizkaiko leku bakarrik dira. Urkiolako artadietan beste orkideko oso bakan batzuekin batera agertzen da (*Limodorum abortivum*, *Cephalanthera damasonium*, *Epipactis parviflora*, *Epipactis microphylla*...).



CEPHALAPANTHERA DAMASONIUM

DESKRIBAPENA: 20-60 cm-ko landare liraina, 8-10 hosto txandakatuak, estuki lantzeolatuak eta oso luzeak dituen. Loreak kolorez zuri garbiak dira eta infloreszentzia luzanga lasaia era-tzen dute. Sepaloak, obal-lantzeolatuak, aurrerantz zuzenduta daude.



LORALDIA: maiatzatik ekainera loratzen da.
HABITATA: baso hezeak, pagadiak.
BANAKETA: ia Europa osoa.

LIMODORUM GENEROA

Bere lorearen kolorearengatik oso erakargarria den orkidea *Limodorum abortivum* da, Limodorum generoari dagokiona; oso arraroa lurralde osoan, pinado, artado eta ameztegietakoa izatez, giro epel eta lehorretan; pinadien parasitua.

LIMODORUM ABORTIVUM



DESKRIBAPENA: 80 cm.tako goiera har dezakeen landare saprofita. Ez du hostorik. Zurtoina kolore more edo urdinez tintatzen da, ezkata zorrotzailerekin kopuru on batean. Brakteak loreak baino txikiagoak eta kolore morekoak. Lore haundiak 4 cm. taraino, 25 eranio lore moreekiko galburuetan. Labelo morea narrio hori nabarmen batekin, luzetara 16 ren bat mm.takoa, triangeluarra. Espoloi luzca, beherantz kurbatua eta obulutegiaren neurri berdinekoa.
LORALDIA: maiatzetik ekainera loratzen da.
HABITATA: baso hezeak.

LISTERA GENEROA

Erraz ezagut daitekeen generoa da *Listera*, Martin lister naturalistari dedikatua; 10 en bat espezie hartzen ditu, zeinetaik 2 Europan aurkitzen diren eta biak Euskal Herrian. Arrautz-formako bi hosto ditu, erraz bereizten duen zurtoinarenean erdikaldetik behera aurrez aurre. Lore txikiak, matsalko metan, labelo luzeekin eta bifurkatuekin. Ez du espolirik, parasitua.



LISTERA OVATA

DESKRIBAPENA: listera ovata leku hezeetan, belartsuetan hariztediak eta haltzadiak bezalako hozpeletan bizi da. 20- 60 cm. tako goiera hartzen dute, zurtoin sotil eta iletsuekin. Bi hosto ditu, zabalak, arrautz-formakoak, berde izarniatsu bici batetakoak. Labeloa luzetara 7tik 15era cm. takoa, berde horiska, bertikala, bi lobulu hestuetan zatituak.

Zurtionak 20-65 cm-ko garaiera.

Hostoak bi hosto bakarrik handiak arrautza-formakoak, 20 cm-rainokoak

Lore ugariak matsalkoak. Lore-lakainak 4-5 mm-koak, kanpokoak berdeak eta barnekoak hori-berdeskak.

HABITATA: belardi hezeak, basoak eta sastrakak.

BANAKETA: Europako orkidearik arruntena da, batzutan oharkabean pastasen den arren. Txikitan zainbelarrarekin vahas daiteke. Espezie hau ekialderantz Himalayaraino ailegatzen da eta Artiko Glacial Zirkuluraino ere, eskasagoa delarik mediterranean alderdietan.

SPIRANTHES GENEROA

S*piranthes* generoak bereiztasun bat du, bere infloreszentziak espiralean bihurtuak agertzen dituela. 80ren bat espezie banatzen da mundu guztian, bi Europa neta Euskal herrian. Bietan bat irailaurrian loratzen da: *Spiranthes autumnalis*, bestea udaran: *Spiranthes aestivalis*.



SPIRANTHES AUTMNALIS



DESKRIBAPENA: *Spiranthes autumnalis* landare ñarroa da, 35 cm. tarainoko goierakoa, ile liskatuzko zurtoinarekin. Arrautz-formako loreak errosetan, ilegabeak, lorapen garaien ihartuak. Luzetara 6-7 mm-ko 20 ren bat lore txurizko galburua. Labeloa oinaldea goialdera kurbaturik, berde horiska.

LORALDIA: uztailetik irailera loratzen da.

HABITATA: lurralde guztian agertzen da, naharoagoa da mediterranean zonan, goitituenak ekinidiaz. Pentzetan, ameztegi zuriguneetan, bidexkatan bizitzen da.

BANAKETA: oso hedatua Europan, Afrika iparraldean, Kaukaso, Txipre, Siria, Libano eta Iraneko iparralde-raino heda-tzen da.

Beste espezieak, *Spirantes aestivalis*, bere adiskidea baino altuxeagoa, lorapenean present diren oinaldeako hostoak ditu, lerro-formakoak. Lore galburua 20 ren bat lore txuriekin. Espezie oso arraroa, Afrikako iparraldean eta Asia Txikiko ekialdean banatzen da.



HEGAZTI KABIA NEOTTIA NIDUS-AVIS

DESKRIBAPENA: hegazti kabia *Neottia* generoari dagokio, bere ordezkari *bacará* delarik; bere izenak rabiaren antzeko izan dezakeen errizoma motz baten gainean sustraiak kokatzen duten forma gogoratzen du. Landare saprofitoa, 45 cm. taraionokoa, horiska edo grisaska, hosto berderik gabe. Lore ugariak, matsalkotan eta perfumatuak; sepaloak eta petaloak txuriskak edo berdeskak, arrautz-formakoak txanotxo osatuaz; labeloa 8 tik 12 ra mm.koa luzetara, arre grisaska eta bi lobuluetan banatua. Zurtoinak 20-45 cm-ko garaiera. Kolore marroi horiskakoa, ezkata papi-razeo zorrogileak.

Hostoak ezkata eran murrituak.

Loreak 5-20 cm-ko matsalkoak; kandu bihurrituak, lore-lakainak 4-6 mm-koak, kolore arre-horiskakoak.

LORALDIA: maiatzetik uztailera lora-tzen da.

HABITATA: Landare oso arraroa Euskal Herria guztian, baso, eluts, zenbait pagadi eta gutxigotan pinado giroetan



hazten da. Pagadi laiotzak eta bestelako hostozabalen basoak.

BANAKETA: espezie hau ekialdetiik Japoniaraino hedatzen da, Asia epeletik zehar hegoaldetik ere Afrikako iparralde-raino.

PLATANThERA GENEROA



Platanthera generoak 70en bat espezie du, bi Europa neta Euskal Herrian. Bere izenak polenaren zorroek aurkezten duten forma aipatzen du. Bere banakuntzak Iparramerika eta Asiako lur hot zeta epelak hartzen ditu.



PLATANThERA BIFOLIA



DESKRIBAPENA: *Platanthera bifolia* da bi espezieetan arrunte-na, 50 cm. tarainoko goiera duen landarea, oinaldeko bi hostoe-kin, arrautz-formakoak edo elipti-koak, berde izamiatsuak. Lore espaziatuak luzetara 20 cm. tarainoko galburu batean, txuriak eta berdez tindatuak, vainilla usain suabe batez, labelo zatigabea, zintzilikaria; esploi oso luzca, 3 cm. tarainkoa, mehea.

LORALDIA: ekainetik uztailera loratzen da.

HABITATA: sasiartean eta baso zuriguneetan hazten da. Itsasoko mai-latik bameko pagadietaraino.

BANAKETA: orkidea hau hegoaldeetik Afrikako iparralderaino eta ekialdetik Asia Txikiraino, Kaukasoraino eta Siberiaraino hedatzen da.



PLATANThERA CHLORANTHA

DESKRIBAPENA: zurtoinak 25-40 cm-ko garaiera. Hostoak: Gehienetan bi hosto oinalde-an, luzangak edo arrautza-formakoak. Loreak: 20 cm-rainoko galburuak, kolore zuri berdeskakoak. Bestea baino aste vatus lehenago loratzen da. Lore berdeak, usain gutxikoak, esploi luze batez.

LORALDIA: ekainetik uztailera loratzen da.

HABITATA: basoak, belardiak, mendialdeko txilardi hezeak. Oso arraroa Euskal Herri guz-tian.



GYMNADENIA GENEROA



Europan bi espe-ziez dago ordezkatua *Gymnadenia* generoa, zeinetarik bat bacará dagoen gure herrian lokalizata, *Gymnadenia conopsea*.



GYMNADEBIA CONOPSEA

DESKRIBAPENA: *Gymnadenia conopsea* landare ñarroa edo ertaina da, ilega-bea, luzetara 65 cm.ak har ditzakeena. Zurtoinak 8 ren bat lantza-formako hosto hestu ditu, zorrotzak eta kolore berde hu-tsekoak. Braktea obulutezia baino haundiagoa. Lore txikiak jeneralki usain onekoak, goiko sepaloak eta petaloek txanotxo bat osatzen dute; labeloak 4 ren bat mm. Ditu luzetara eta 3 lobulutan zatituta dago; esploi luzca eta mehea da, 11-18 mm.koa. Zurtoinak 65 cm-rainoko garaiera. Tenteak. Hostoak 8rainoko kopuruan, estuak, lan-tza-formakoak, puntazorrotzak, kolore berde hutsa. Zenbat eta gorago, orduan eta txikiagoak. Loreak: Txikiak: galburu trinko zilindrikoak, 6-16 cm luzekoak, arrosa-kolore bizi-koak, batzutan zuriak, usain gozokoak.

LORALDIA: ekainetik abuztura loratzen da.

HABITATA: belardiak, hegala balartsuak, istingadiak, baso irekiak, sastrakak.

BANAKETA: lurralde zatirik haundienean nasaiki banaturiko landarea, naharoa mediterraneaz mazelan, sorotan, zelai lehorretan hazten da... Siberiatik Asia eta Japoniaraino ailegatzen da.

COELOGLOSSUM VIRIDE


DESKRIBAPENA: landare itxura errabola-dunezko sustraia, goiera ertainekoa, 35 cm. taraino. Hosto gutxi, oinaldean, arrautz-formakoak eta kaulinarrak lantza-formakoak eta txikiak. Lantza-formako braktea loreak baino haundiagoa. Loreak galburu lase batean kokatuak, ez oso deigarriak, kolore berde horiskakoak, zertxobait arreak edo arre purpurak; sepaloak eta petaloak txanotxo eraikiaz. Labeloa hiru pirzatan, erdikoa muturrekoak baino txikiagoa; esploi motza.

LORALDIA: maiatzetik ekainera loratzen da.

HABITATA: mendietako soroetan, amilbaz-ter oinetan, elutsetan.

BANAKETA: *Coeloglossum viride*-ak Coeloglossum generoa ordezkatzeko du, Europan bi espezie dituelarik, non aski arruntak diren, lokalizapen zailekoak bere kolore berdearengatik. Ertasiraino eta Iparramerikako ekialderaino hedatzen da. Euskal Herrian poblazio oso lokalizatuak ditu Aralar, Aizkorri eta nafar Pirinioan.





DACTYLORHIZA GENEROA

Klasifikapen zaileko genero bat da *Dactylorhiza*, Europan 20 ren bat espezie dago, zelaietako tipikoak, zona zingiratsuetakoak eta txilardietakoak; kolore oso deigarritzko kolonia zabalak osatzera heltzen da. Genero hau ekialdetik Asia Txikiraino dago hedatua. Erraz nahas daiteke *Orchis* generoarekin.

Bi tuberkulu dituzte, eskuko vetasen an-tzeko lobuluekin, Orchis-en bezala arrautz-formakoak edo biribilduak izan ordez. Jeneralean hosto gutxi dute lurreko mailatik eta zurtoinetik banaturik, zurtoinekoak neurri txikiagoak izaten dira eta braktea itxurakoak; narrioturik edo gabe ager daitezke. Loreak galburu mordotsu edo lasetan biltzen dira, zorrotzak. Sepaloak oro har zabaldurik daude, bi muturrak legal moduan irekirik daudelarik, hirugarrena eta bi petaloak kasko bat osatuaz elkartzen diren artean. Labeloa zabala eta nabaria da, 3 lobulu eduki ditzake edo bat ere ez, sarritan puntuz eta lineaz narriotua.

Erraz ibridatzen dira, beraz beren mugapen zuzena oraindik gehiago nahaspilatzen da. Euskal Herrian 11 espezie inguru agertzen da, Nafarroan gehien, enparau herrialdeetan batera baino gehiago.



DACTYLORHIZA SAMBUCINA



DESKRIBAPENA: bi kolore ezberdinekin ager daitekeen landarea eta maiz soro berdinean elkarrekin topatzen ditugu; in-tsusarena deituriko orkibelar hau tipikoa da mendian eta loratzen aurrenetariko bat azken elurteetan ere aurki daitekeelarik. Bere loreak normalki horiak dira nahiz eta batzutan kolore purpurado espezimenak agertzen diren; labelo haundia, oso aedo hirukuskua eta hortzduna. Labelo horizko loreak punteatu purpura ilun batez tintatzen dira eta kolore purpurazkoak horiz tintatzen dira hasera batean. Lore hauek galburu mordotsuetan biltzen dira, konikoak, intrusa usain tipikoarekin.

LORALDIA: maiatzetik abuztura loratzen da.

HABITATA: goi eta ertain mendietako zelaietan hazten den landare arraroa.

DACTYLORRHIZA MACULATA

DESKRIBAPENA: zurtoinak: 60 cm-rainoko luzera. Tenteak edo uhinduak.

Hostoak: 6-10naka, zurtoinean sakabanatuak, tenteak, eliptiko /luzangak, normalean orban beltz purpurak edukiz.

Loreak: galburu trinko, koniko edo luzangak; lore arrosa, lila, gorrisa edo purpurak.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: belardiak, basoak, sastrakak, txilardiak.



ORCHIS GENEROA



Orchis generoa da gure orkideen artean ugariena, 15 en bat espezie izatera heltzen delarik, gehi genero honetan maiz ematen diren subespezieak eta barietateak. Forma eta kolore naharotasun haundiena erakusten duten orkideak dira, ikuskatzeko eta fotografatzeko politenak direlarik.

Lokalki kopuru haundietan ager daitezke, nahiz eta normala den espécimen isolatuak ematea. Oso sentisibleak, gainerako orkideak bezala, edozein aldaketa moeta-rengatik izaten dira afektatuak, hala zuzenekoak hala zehiarkakoak, erbizidak, abonoak, bilketa edo beren habitataren aldaketa.

Bi tuberkulu arrautz-formakoak edo esferikoak dituzte, haragitsuak, hertsiki taldekatuak (Orchis izenak tuberkuluaren eta testikuluaren arteko antza adierazten du). Hosto nagusiki oinaldekoak, zurtoinean ere ager daitezkeen arren, baina txikiagoak hauek eta berori zorroratuz. Loreak galburuetan kopuru aldakorrean. Sepaloak eta petaloak normalki kolore berdinekoak; zabalduak edo berdin goi petalo biak elkarturik kasko itxi bat emanaz, edo alboko bi sepaloak kanporantz eta gorantz zabaldurik legal pare bat bailiran, goikoa petaloei elkartzen zaien artean, txano-txo bat sortuaz. Labelo haundia, trilobulatua, giza figuraren itxurakoa: alboko lobuluek besoak osatzen dituzte eta behekoak, lobulatua ere, hankak osa-tzen ditu, beren artean buztan edo hortz motz batekin. Labeloaren oinaldean espoloia dago, luzca ala motza eta atzerantz zuzendua. Talde honen izen generikoa, *Orchis*, eta bere esanahia legenda baten iturri bihurtu zen, landare hauen eraboiak zuten botere afrodisiako eta sexualari buruz.



ORKIDEA ERREA

Orchis ustulata

DESKRIBAPENA: orkidea errea (*Orchis ustulata*) zeinaren izenak izenak galburuaren goiko alderdiaren kolore iluna aipa-tzen duen. Zurtoinak: 35 cm-rainoko garaiera. Erditik gore hostogabeak. Hostoak luzangak, puntazorrotzak, kanalatuak, orbangabeak. Loreak: txiki txikiak, mordoska trinko eta konikoak. Beheko loreak zimelezean mordoskak luzatu egiten dira. Sepaloak eta petaloak kasko purpura arreska osatuz. Labeloa zuria edo arrosa zurbila, purpura-orban finekin.

LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen da.

HABITATA: belardi lehorrak, karrarizko lurzorua duten hegai belartsuak.



ORCHIS MASCULA

DESKRIBAPENA: 20-60 cm-ko landarea, oinaldean itxura oblongo-lantzeolatum 4-8 hosto dituen. Loreak kolorez purpurak edo arrosak dira eta galburu luze batean azartzen dira. Lore bakoi-tzak ezproi zilindriko luze bat da atzealdean eta labeloa zertxobait lobulatua da.

Zurtoin purpura eta berdez eta kolore berde hutseko edo narrio purpurazko hostoekin. Loreak arrautz-formako galburutan kokatzen dira, lase, kolore arroxaz edo purpura ilunez, labeloaren erdialdean narrio ilunez.

Zurtoinak: 55 cm-rainoko garaiera. Sarritan purpuraz koloreztatuak.

Hostoak: 3-5 besto luzanga, kolore berde hutsekoak edo purpuraz orbanduak, zurtoin-hostoak zorrogiloak.

Loreak: Ugariak, galburu eliptiko, lasa eta karritsean, arrosak edo purpura ilunak, inoiz zuriska, labeloaren erdialdean orban ilunaz.

Emoliente gisa eta beherakoaren aurka erabil izan da batzutan. Europa eta Ekialde Hurbileko zenbait lekutan salep izeneko edari elikagarri bat prestatzen dute landare honen eta beste orkideo batzuen tuberkuluekin.



LORALDIA: apiriletik ekainera loratzen da.

HABITATA: soro eta zelaietan, ameztegi, hariztedi eta pagadietako, sastrakadiak, bide bazter belartsuak eta baso soiluneak zuriguneetan hazten da. Gure mendietako zonarik goienetara heltzen da. Oso naharoa da.

BANAKETA: munduan zehar ekialdetik Errusia asiataraino, Turbia eta Kaukasoraino hedatzen da.

SERAPIAS GENEROA



Orchis eta Ophrys-ekin ahaideturiko genero bat da Serapias. Ezaugarri bereizgarri bezala braktea handiak dituzte, aurrerantz zuzentzen den kasko nabari bat osatzen duten sepaloen antzeko kolorekoak; labeloa handia da eta usualki beherantz zuzendua dago eta mingain itxurarekin, alboko bi lobulu motzekin gorantz biraturik eta erdiko lobulu-tzar zorrote eta nabari batekin. Loreek ez dute espoloirik eta erleek ernaltzen dituzte. Erraz ibridatzen diren espezieak, beraz mugaketa zehatz bat zaila eta konplexua bihurtzen da. Euskal Herri guztian 4 ren bat espezie ditugu present, horietarik Serapias lingua eta Serapias cordigera dira banaketa haundienekoak. Beste ez hain naharo vatus dira *Serapias parviflora* eta soilik Nafarroan present *Serapias vomeracea* zona oso lokalizatuetan.



SERAPIAS CORDIGUERA

DESKRIBAPENA: zurtoinak: 50 cm-rainoko garaiera. Hostoak estuak, lantza-formakoak, kanalatuak, zorroztuak, oinaldeko hosto-zorroak pitin bat purpurak eta gorriz orbanduak. Loreak 10 lorerrainoko galburu labur eta ingerada biribildukoa; loreak 20-35 mm luze-koak. Petaloak eta sepaloak purpura gorriska zurbilak kanpotik, biziagoak barnetik. **LORALDIA:** apiriletik ekainera loratzen da. **HABITATA:** belar-leku hezeak, sastrakak, baso irekiak.



SERAPIAS LINGUA

DESKRIBAPENA: zurtoinak: oso gutxitan 25 cm baino luzeagoa. Hostoak: estuak, lantza-formakoak, berde-urdinskak, oinaldeko hosto-zorroak berdeak. Loreak: 9 lorerrainoko galburuak. 15-25 mm-ko loreak. Sepaloak bioleta edo purpurak. Labeloa kolore-berekoa, oinean orban beltz nabariarekin. **LORALDIA:** martxotik ekainera **HABITATA:** belardi hezeak, istingadiak, leku hareatsuak.

ORKIDEA PIRAMIDALA

Anacamptis pyramidalis

DESKRIBAPENA: goieran 60 cm.ak hartzen ditu. Hosto berde hitsak, lerro-formakoak, lantza-formakoak eta akanalatuak. Lore arrosa bizia, batzutan txuriak; labelo motza 6 tik 8 ra mm.takoa, trilobulatu; espoloi oso luzea eta mehea, 12 tik 14 ra mm.takoa. Zurtoinak 20-75 cm-ko garaiera. Tenteak puntan lore-galburua. Hostoak Behealdekoak kanalatuak, berde zurbilak, lerro-formako/lantza-formakoak; besteak, zurtoinean zenbat eta gorago egon, orduan eta txikiagoak. Loreak: Galburu konikoak, trinkoak, lore nahiko txikiak, arrosa-kolore bizikoak, inoiz arrosa zurbila edo zuria. orkidea piramidala (*Anacamptis pyramida-*

lis) *Anacamptis* generoari dagokio eta ondo ordezkaturik dago Euskal Herri guztian, nahiz eta escasa den eta maiz poblazio lokalizatuetan aurkitzen den. Oso erakargarria bere galburu koniko arrosengatik. **LORALDIA:** maiatzetik uztailera loratzen da. **HABITATA:** belardiak, kararrietako sastrakak. Naharoa hegoaldera, ihes egiten dute lur hezeegietatik. Ameztegietan eta artadietan agertzen da batez ere. **BANAKETA:** bere banaketa Ipar afrikara eta ekialdetik Asia Txikia, Kaukaso, Israel eta Granera hedatzen da.



HIMANTOGLOSSUM GENEROA

Familia honetako espezieirik ikusgarrienetako bat Himantoglossum hircinum da, Himantoglossum generoari dagokiona

DESKRIBAPENA: zurtoin tentea eta leuna duen 10-40 cm-ko landarea. Hostoak oblongoak edo oblongo-lantzeolatuak dira, gainekoak txikiagoak. Infloreszentzia luzanga bat ematen du, hori besdeskak eta batzutan tonu gorriskak dituzten lore ugaz hornitua. Loreak kaskoa du gainean eta labeola zatikatua du, zintzilikatutako pertsona txiki baten itxura hartuz. Beren sustraiek errabaila itxura dute. Sotila, goieran 40 cm.tarinokoa. Oinaldeko hostoak berde izamiatsuak, goikaldekoak txikiagoak eta besarkatzaileak. Braktea mintzaireak, loreak baino txikiagoak. Loreak galburu luze eta metan kokaturik, lore txiki ugazirekin, hori berdeskak serenad eta ertz gorriekin. Ez dute espoloirik. Gaztelaniazko izen arrunta (hombrecillos ahorcados=gizontxo urkatuak) eta izen zientifikoa (anthropophorum=gizona duena) loreak duen urkatutako gizaki itxuratik datozkio. **LORALDIA:** apiriletik ekainera loratzen dira.



GIZON URKATUEN LOREA

Aceras anthrophorum

HABITATA: larre harritsuak eta sastrakadietako soiluneak, lur-zoru karetsuetan gehienetan. Soro lehorretan eta karekizkoen eta tuparren gainean hazten da, gailur eguzkitsuetan eta sasi garbietan. **BANAKETA:** Mediterraniar eskualdea eta Europako erdialdea eta mendealdeak. Afrikako iparraldean, Errodasen, Txipren eta mediterraneo orientaleko herrietan topa dezakegu.

HIMANTOGLOSSUM HIRCINUM

DESKRIBAPENA: *Himantoglossum hircinum* Europear orkidea haundienetarikoa. Kuriosoa da labelo luzeak loreak zabaltzen diren heinean nola desbiribiltzen diren begiztatzea. Usain txarra dute. Sustrai errabailadun landarea, goieran 90 cm.taraino hel daiteke. Kolore berde hitseko hostoak, behekoak luzangak eta goikoak txikiagoak eta besarkatzaileak. Galburu laseak, luzeak, eta lore ugazirekin. Labelo oso luzca 30 etik 50 era mm., 3 lobulu luzeekin, muturrak 5 etik 10 era mm.ko luzerako beso formakoak, erdikoa nahiko luzeagoa eta apize kizkurrarekin bitan zatituta. Labeloaren erdikalde txuria da purpuraz narriotua; espoloi oso motza 3-4 mm.takoa, biribildua. **LORALDIA:** maiatzetik abuztura lora-tzen dira. **HABITATA:** zelai harritsuetan, leku eguzkitsuetan eta hazkuntzarako soroetan, mahastiak batzutan, hazten da. **BANAKETA:** landare oso arraroa da Euskal Herri guz-



tian, poblazio oso punbtualekin Nafarroan eta Araban. Ekialdetik Asia Txikiraino eta Ipar Afrikaraino hedatzen da.

OPHRYS GENEROA



rainarte Orkideen familiares forma eta kolore aldakortasun haundia baieztu baldin badugu, genero oraindik ere bakana-goa da *Ophrys*, morfología arras konplika-tua duena delarik. Bere labeloa da, hain zuzen ere, neurri haundikoa eta marrazki finko batzurekin, alda-kortasun morfológico gehienak erakusten disuena. Maiz armiarma itxura, edo batzuri beren izen herrikoa ematen dieten intsektuena aurkezten dituzte. Lorearen zati honen adaptaketa evolutibo haundia ez da koinzi-dentzia bat izan, baizik eta polinizaketari laguntzeko hitz batean espeziearen iraunkortasuna bideratzeko adaptaketa berezi bat. Metodo honekin, intsektuen arrak lorearen formarengatik erakarriak izaten dira, emeena gogorarazten dien usainarengatik ezezik, honela loreak polinizatuaz. Gaur egun ez dakigu dela-ko adaptaketa evolutibo hori hain garrantzizkoa den, zeren eta autopolinizatzen diren espezieak bai bait daude, *Ophrys apifera* bezala.

Ophrys generoa mediterranean erregioko tipi-koa da, epela eta lehorra hau, eta ugaria da Italian, Grezian, Frantzia hegoaldean, Espainian, Mediterranioko Irletan, Afrika ipa-rraldera eta Ekialde Ertainera irixten delarik. Europa septentrional aldera eskasagoak dira espezieak. Beren arteko ibridaketa sarritakoa da, beren klasifikapena zailduaz horrela. *Ophrys*-ek bi edo hiru tuberkulu biribildu hara-gitsu ditu. Hostoak jeneralki oinaldekoak erro-setan, bi edo hiru kaulinekin, zorragileak. Loreak galburu lasetan, motz edo luzetan eta maiz bakarka. Sepalo handiak arrautz-forma-koak edo luzangak, zabalduak, berdeak edo koloreztatuak; petalo txikiak, filiformeak eta sarritan iletsuak. Labeloa da Loreto organurik garatuena, batzutan ile niminoz estalirik dagoelarik intsektu itxura emanaz, sepaloek eta petaloek hegalkak eta antenak imitatzen dituzten eran. Koloreak, marraz-kiak eta formak aldatu egiten dira espezie batetik bestera eta espezie bakoitzaren barruan ere. Labeloa osoa izaten da edo tri-lobulatua eta erdialdean puska izarniatsu eta leun bat eramaten du (speculum). Ez du espolirik.


Euskal Herrian 11 bat espezie aurkitzen dugu, giro naharoenen bornean.

Orkidea kiskalia (*Ophrys. fusca*) da loratzen diren lehenetarikoa,



otsailan aurki daitekeelarik. Labelo trilobulatua du kolore urdinska eta marroiekin, metalikoak eta hesi hori batez. Orkidea horiak (*Ophrys lutea*) labeloa hiru lobulu biziki horiskatan zatitu-rik du; erdikoan nario marroi eta urdinska bat agertzen da. Erraza da identifikatzen. Orkidea ispilua (*Ophrys speculum*) da kolore metaliza-tuenak eta ikusgarrienak disuena. Intsektuak erakartzeko erabiltzen du bere azalaren brilua. Labeloa trilobulatua da kolore urdin metalikoz-koa eta lerro hori gorriska batez inguratua. Beste

Ophrys mota batzu, beren labeloaren formarengatik izen lilura-garria dutenak dira orkidea liztorra (*Oprys tenthredinifera*), orki-dea erlea (*Ophrys apifera*), orkidea eulia (*Ophrys muscifera*). Espezie guzti hauek ameztegi eta artadietatik eratorririko zelai lehorretan hazten dira. Karekizko eta tuparrizko lurretan. Orkideen ikuspegi labur hau amaitzeko *Epipogium*, *Goodyera*, *Herminium* generoak aipatzea bakarrik falta zaigu, Nafarroan soi-lik presente. Genero oso arraroak dira eta ordezkari eskasak zeren eta bakoitzak espezie bakar bat du. Landare hauen lore-ak ez dira ikusgarriak eta oharkabeen erraz igarotzen dira.



ERLE LOREA

Ophrys apifera

DESKRIBAPENA: hosto obalak edo lantzeolatuak dituen 10-50 cm-ko landarea. Loreak, dozena bat baino lore gutxiago dituen gal-buru lasai batean ageri dira. Sepaloak zuri-arrosak dira eta erdiko nerbio berdea nabaria dute. Labeola kolorez purpura da, belu-satua da eta ertz horidun orban bioleta edo arre-gorriska du. Zurtoinak: 50 cm-rainoko garaiera. Hostoak: Oinaldekoak, eliptikoak edo lantza-formakoak, kamutsak; zurtoinekoak berdintsuak, baino txikiagoak.

Loreak: 2-9 loreko galburuk (inoiz 15erainokoak ere bai). Sepalo arrosa biziak edo purpurak. Labeloaren erdiko gingila arre balusatua, orban bioleta edo arre gorriska batekin eta ertz horiare-kin. Orkideo honen loreak erle erlaben antza du. Kolore eta usainak erabiliz lorea estali nahi duten intsektuak erakartzen ditu, era horretan beste landare batera garraiatuko duten polenez betetzen dira eta orkideoaren ugalketa errazten dute.

LORALDIA: maiatzetik uztailera.



HABITATA: belardi lehorrak, larre harri-tsuak, ezpondak eta baso soiluneak.

BANAKETA: ia Europa osoa eta Mediterraniar arroa.

OPHRYS SCOLOPAX

DESKRIBAPENA: 10-40 cm-ko landarea, hosto lan-tzeolatuduna eta lore gutxirekin osatutako infloreszen-zia duena. Sepaloak arrosak izan ohi dira eta labeloak, handia eta obalatua, eranskin hori bat du muturrean eta itxura duen orban bioleta edo urdinska gainaldean. Zurtoinak: 45 cm-rainoko garaiera.

Hostoak: Oinaldekoak, lantza-formakoak eta zorrotzak; zurtoinekoak, txikiagoak.

Loreak: 3-12 loreko galburuak. Sepalo bioleta-purpura edo arrosakj. Petaloak sepaloen kolore-berekoak. Labelkoa hiru gingilekoa, purpura beltzeska edo arres-ka, orban handi bioleta edo urdinarekin, ertza horia edo zuriska.


Beste orkideo askoren modura, bere loreek intsektuen antza dutenez, erakarri egiten dituzte eta lorearekin ugaltzen saiatzerakoan polena landare batetik bestera garraiatzen dute.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: basoak, sastrakak, belardiak eta larre lehorrak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula eta Frantziako hegoal-dea.





Impresión Offset

Impresión Digital

Fotografía

Cartelería

Velocidad

Tu imprenta de confianza



C/ IRUÑA, 1 BIS, 2ª PL.- BILBAO

✉ info@graficasrd.com

☎ 94 447 93 04

💻 www.graficasrd.com